

Hodei **Mazkian**  
Caliko **Munduko**  
Pista **Txapelketan**



Kirolak >> 11

Uharteko **kintoak** atzotik  
ospakizunean daude. **Lakuntzako,**  
**Arbizuko eta Etxarriko** kinto  
ospakizunak atzetik heldu dira



Sakanerria >> 8



## Hemen dira inauteriak

>> 8-9

**June Kintana**  
domina  
lortzeko  
lehiatuko da

Bihar, Leonen, Espainiako atletismo txapelketako jaurtiketa luzeen lehiaketan ariko da >> 11

**Angel Antonio Agirreren**  
erakusketa  
Urdiainen

Tinta txinatarra erabiliz egindako pinturak eta hiru eskultura jarri ditu ikusgai hilabete batez >> 14

**Bardoak**  
txapelketa  
sakandarrik  
gabe

Lehen fasea bukatuta sei taldek egin dute aurrera. Bilixkorriko eta Bizkorratxiko ez dira sailkatu >> 15

**Euskararen**  
arnasguneak  
tailerra  
martxoan

EuskaGintzako kideak izen ematera gonbidatuak >> 5



**Emakumeen**  
Jardunaldiak,  
astelehenetik  
Irurtzunen

>> 6

**Tarima**  
Beltzak  
antzezlanak  
mustuko du

Bihar, bi emanaldi

>> 15

**Elkarrekin**  
**bidea egiten**

*Denon ahotsa*  
*behar dugu,*  
*egin zaitez*

**Komunitateko**  
**kide**

**GUaiXe.net**



# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

GURE REMOVE PLANA %20<sup>ra</sup> arteko deskontua

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



## Nahia Miguel Goikoetxea

Izarrak zeruan daude, baina zu lurrean zaude gure bizitzan dizdiratzen. Zorionak zure 9. urtebetetzean. Amatxo eta familiaren partetik. Muxu asko!!



## Enara eta Nahia Berasategi Lakuntza

ZORIONAK Enara eta Nahia!! Zuen familiaren partez.



## Aner ZORIONAK ANER.

Gui itxeko tikiyek urtiat. Muxu haundi bet amina eta aittuna.



## Aner

ZORIONAK ANER. Aindaa-neko urtiat gui artien. Segi dakazun irrifar goxo horrekin txoko guziek aleitzen. Osaba, Izeba eta Aitz.



## Iraia ZORIONAK

bihotza! 7 urte! Pilla-pilla patata tortilla Oier eta ama-txoren partez!



## Agueda Maiza Erdozia

ZORIONAK zure 91. urtebetetzean! Ongi pasa egune eta muxu haundi bet etxeko guztiyeren partetik.



## Adei

Gue pottokuek urtiat gukin daua, muxu handi bet Lizarraga ta Egiarretako sendiyan partetik. Segi guai artie bezain jatorra eta txintxue izaten.



## Adei

Lizerrako mutiko politenandako Aitor eta Haizean partetik, tarta goxue prestatu!



## Izaigeltz

ZORIONAK zure 5. urtebetetzean!!! Egun polita pasa genuen eta ospakizunetan ere gustora egon ginen. Milla muxu etxekoan partez.

## otsailak-martxoak

# 28-6

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Kike Pravda, Nöle, Nemesi, Iñigo Arriza, Borkan, Mike Villas eta Eder Pardo.** Martxoaren 1ean, larunbatean, 21:00etatik aurrera Irurtzango Larrazpi elkarteak.

### Antzerkia

**Nunca fuimos héroes.** Martxoaren 1ean, larunbatean, 20:00etan eta 22:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Tarima Beltza.**

### Ipuin kontalaria

**Oparia.** Otsailaren 28an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Patricia Eneriz.**

### Mendi irteera

**Izaga haitza.** Martxoaren 2an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Zinema

**Un cerdo en Gaza.** Otsailaren 28an, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 2an, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**Agosto.** Otsailaren 28an, ostiralean,

22:00etan eta martxoaren 23an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

### Txirindula irteerak

**Hirumugako gaina.** Martxoaren 2an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik, 43 km. **Burundako mendi bizikleta taldea.**

### Tailerrak

**Makillajea.** Martxoaren 1ean eta 2an, larunbatean eta domekan, 18:00etatik 20:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Erakusketak

**Altsasuko inauteriak.** Martxoaren 9a arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Inauteri Batzordea.**

**Pintura eta eskultura.** Martxoaren 21era arte, Urdiaingo Kaluxa tabernan. **Angel Antonio Agirre.**

**Mayar emakumeak, duintasunezko koloreak.** Martxoaren 3tik 23ra arte, Irurtzango San Martin jubilatua elkarteak.

**Pintura erakusketa kolektiboa.**



Asteartean mustu zen Altsasuko ikastetxeek inauteriei buruz prestatutako erakusketa.

Martxoaren 3tik 30era Irurtzango La Tahonan eta Pikuxarren.

### Bestelakoak

**Garikunde.** Otsailaren 28an, ostiralean, 19:00etatik aurrera Etxarri Aranatzan.

**Astelehen lilak.** Martxoaren 3an, astelehenean, 19:00etan Irurtzango plazatik Iruñeko kontzentrazioa joateko.

**Zinemara.** Martxoaren 5ean, asteazkenean, 18:00etan Irurtzango

plazatik Iruñeko zinema areto batera joateko. **Emakumeen jardunaldiak.**

**Hizkuntza eskubideak, jatorri aniztasuna, kultura eskubideak, sexu aniztasuna eta parte hartzea.** Martxoaren 6an, ostegunean, 19:00etan Lakuntzako udaletxean. **Euskal Herriko eskubide sozialen karta.**

### Deialdiak

**Euskal Presoak Euskal Herrira!**

Otsailaren 28an, ostiralean, 20:00etan Irurtzango, Uharteko Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Martxoaren 2an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Martxoaren 3an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxean.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

**beleixe** <sup>107.3 FM</sup> *online*  
www.guaixe.net

*Piztu irratia!*

## ASTEBURUKO AGENDA

**ASTEKO ERREPASOA:**  
albisteak, kirolak, Tarima Beltzaren antzezlan berria, Altsasuko dantzari beterranoen taldea, Altsasuko Gure Ikurren Alde taldea...

Esataria: *Eneida*



**Aurre matrikula epea:**  
**Martxoaren 3tik 18ra**

**Matrikula epea:**  
**Maiatzaren 23tik 30era**

**Ateak zabalik eguna:**  
**Martxoaren 4an**  
**16:30etik 17:30era**

# kattuka

haur eskola

"Lanera joan behar dugunean, lasai uzteko lekua bezala ikusten dugu Kattuka. Maitagarriak eta arduratsuak diren hezitzaileekin eta oso tratu hurbilekoak. Semea gustura ikusteaz gain, berak bere garapenerako behar duen denbora eta materiala eskaintzen zaio eta beraz, oso gomendagarria den haur eskolatzat daukagu. Lasaitasuna eta konfiantza osoa ematen digu, gehien maite duguna bertan uztea".

**Nerea. Ekiren ama.**

"Aurten, gure alabak Kattuka utziko du eta datorren ikasturtean 6 hilabeteko semea ekarriko dugu. Kattukak autonomoagoak izaten laguntzen die, sormena sustatzen du eta gu oso pozik gaude".

**Juanma eta Zezilia.**  
**Zoeren gurasoak.**

"Kattuka familia bat da. Nire alaba Kattukan uzten dudanean badakit ongi egon behar dela. Oso lasai gelditzen naiz badakidalako ondo zaintzen dutela. Konfiantza ematen didate! Gu oso pozik gaude gure alaba Kattukan ongi ikusten dugulako".

**Ainhoa.**  
**Malenen ama.**

"Guretzat oso lagungarria da, inguruan familiarik ez dugu eta. Bere garapenerako onuragarria da eta gure aldetik, hezkuntza kontzienteago bat egiten laguntzen gaitu".

**Eunate.**  
**Maddiren ama.**

"Haurrak errespetuz eta maitasunez tratatzen dituztela eta ilusioz lan egiten dutela esango nuke. Nire semearen hezkuntzan lagungarriak dira. Hau bat Kattukara eramanaz, seme-alaba gehiago izateko gogoazartzen zait".

**Maria. Markelen ama.**

"Oso pozik gaude Kattukan. Gure alabaren erritmoa errespetatzen dute eta hori, guretzat, oso garrantzitsua da".

**Oihane.**  
**Oskiaren ama.**

"Bi seme dauzkagu Kattukan eta oso nabaria da autonomian egiten duten ibilbidea. Guretzat ezinbestekoa da hori".

**Alfredo.**  
**Dulantz eta Xabaten aita.**

## Hitzaldia

### HAURAREN EHUN HIZKUNTZAK

Hauraren sormena  
HIZLARIA: Alfredo Hoyuelos  
**Martxoak 27, 16:30ean**  
(Gaztelerez eta doan)

### INFANCIA SANA CON HOMEOPATIA

Gure haurren osasunaren ikuspuntu desberdin bat  
HIZLARIA: Konny Dieterich  
**Apirilak 8, 16:30ean**  
(Gaztelerez eta doan)

### ERLAZIOAK ERAIKITZEN

Zigor, mehatxu eta xantaiak ekiditen  
HIZLARIA: Nerea Mendizabal  
**Maiatzak 21, 17:30ean**  
(Euskaraz eta doan)

Antolatzailea:



kattukakogurasoenelkartea@gmail.com

**Kattuka Haur Eskola**

Uhalde kalea z/g • 31839 Arbizu • 948 567 009 • kattukahareskola@gmail.com





Aingeru Mikeo

astekoa

## Zer berri?

“Zer berri? Zaharrak berri” dio ohiko agurkerak. Baina erlatiboa da esaera hori, denboraren makinak ez baitu etenik, eta hildako aroak ez du bueltarik. Biziberri-tu, ez dago besterik! Eta horixe da ihauteriek ospatzen dutena, neguaroa iraganda, amalurrari esnatzeko deia eginez.

Ematen du Nafarroako politi-

kagintzan ere aro bat ixtear dagoela. Horren harira, berriki LAB sindikatuak azterketa bat atera du, zeinetan, Nafarroako Estatistika Institutuak ateratako datuak probestuta, Europako beste herrialdeekin alderaketa egin duen, zentzu zabalean, gizarte ongizateari eusteko zutabe nagusiak sartuz: osasuna, ezgaitasu-

na, zahartzaroa, biziraupena, haurrak eta familia, etxebizitza, bazterketa soziala eta langabezia. Barne Aberastasun Gordinarekiko gastuaren emaitza larria da: Danimarkan %34; Europan batez bestekoa %30; Espainian %27; eta Nafarroan %19. Nafarroaren atzetik, soilik Errumania, Estonia eta Lituania daude.

Nafarroan, gizarte ongizate gainbehera hori krisia hasi aurretik hasia zen, baita ustezko garai ekonomiko hoberen haietan ere, Miguel Sanzek 600 euroko afariak egiten zituenean, Los Arcosko zirkuitua, Sanferminetako museoa, Arena kiroldegia, Abiadura Handiko Trena, itzalpeko peaje-ko autobideak eta abar, uste han-

diz sustatu zirenean ere, aberastasuna, herritar ororentzat baino, batzuen lagunen laguntzat banatu izan denean ere. Horixe izan da Barcina, UPN eta beren lagunek garatutako eredu.

“Zer berri? Hauteskundeak berri?”

aingerumi@gmail.com

## barrutik kanpora

### Hipoteka mailegu bat itzuli ezinik, egoerari aurre egiteko hainbat aholku (I)

Hipotekarengatik Kaltetutako Sakanako Pertsonen Plataformatik aholku praktiko batzuk emanen dizkizuegu, norbaitek hipoteka mailegua itzultzerik ez badu zer egin behar duen argitzeko:

- Funtsezkoa da jakitea aseguru poliza batek hipotekaren ordainketa bermatzen ote duen, ordaindu behar duena lanik gabe edo ezindurik gelditu bada.

- Finantza entitateek zorra berriz negoziatzeko agertzen duten ezintasuna kontuan harturik, komeni da baldintza

berriak arreta handiz aztertzea, ordainketa geroratzetaz hutsean eta interes handiago batean gelditzen ahal baita. Irtenbide hori egokia izanen da kaltetutako pertsonak bere diru-sarrerak eta gaitasun ekonomikoa handitzeko itxaropena bada, bestela, ez.

- Hipotekatutako etxebizitza lanbide edo enpresa jarduera bati loturik egonez gero, ezin izanen da kendu, kaltetutakoa lehiaketan dagoela aitortzen bada.

- Lursaila enkantean atera ondoren, kaltetutako pertsonak

eskatzen ahal du etxebizitzatik alde egiteko eman dioten epea luzatzeko, bere gorabehera pertsonalak kontuan harturik.

- Gobernuak iragarri zuen hipoteka luzamenduaren helburua da hipotekak ordaintzeko kuoten %50 luzatzea zati eta denbora batez, baldin eta hipoteka horiek 2009ko martxoaren 1etik 2011ko otsailaren 28ra bitarteko epean sinatu baziren. Hilean 500 euro izanen dira gehienez, eta ohiko etxebizitza erosteko eratu den hipoteka baten titularrei soilik

aplikatzen ahalko zaie, baldin eta 2008ko irailaren 1a baino lehen sinatu bazen eta hipotekaren kopurua 170.000 euro edo gutxiago bada. Era berean, ez dute etxebizitza halako luzamendu batean izan behar. Baldintza horiek betetzen badira, luzamendua eskatzen ahalko zaio banku entitateari, baina garrantzitsua da jakitea bankuak ez duela nahitaez luzamendu hori egin behar.

Kontuan harturik indarreko legeek eta administrazioek eskain-

tzen dituzten neurri eskasek ez dutela egiazko irtenbiderik ematen, kaltetutako pertsona guztiei dei egiten diegu HIPOTEKAK KALTETUTAKO PERTSONEN PLATAFORMArekin bat egiteko. Horrela, bada, indarrak elkartu, irtenbide errealak eskatu eta eredu aldaketa bultzatuko dugu, etorkizunean egungoaren gisako krisirik gerta ez dadin.

www.afectadosporlahipoteka.com  
pah.hkp.sakana@gmail.com  
636 968 368

## barrutik kanpora

### Bikote sistema eraikitzeke aholkuak

Norberak bere buruaz eta inguruaz ikasteko beharrezkoak dira hausnarketak, lan pertsonalak eta, noski, askotan parean topatzen dituzun egoerak zurekin zerikusi handia daukatela konturatzeko zara. Azken finean, pertsonak ez gara hain ezberdinak, batzuetan kontzienteago, beste batzuetan ez hain kontziente, baina oinarrian guztiok behar berdina ditugu. Behar guztien artean, gaurkoan harreman eta bereziki bikote harremanei erreparatuko diet.

Joan Garriga psikologo kataluniarrek bere liburu batean aipatzen duen moduan, gizakiok harremanen beharra daukagu, eta guztiok gure bizitzan zehar beste pertsona berezi bat, eta berezi sentiarazten gaituena topatzeko gogoia sentitzen dugu.

Ni erabat ados nago berarekin eta gehituko nuke gizakiok bikote harremanak bilatzen eta nahi izaten ditugula, baina aldi berean gatazkatsuek bihurtzen direla, eta zailtasun ugari izaten ditugula aurrera eramateko garaian.

Zeinek ote du, ba, maitasun osasuntsuaren giltza? Egia da zaila dela asmatzea, baina harreman onak eraikitzeke beharrezkoa da maitasuna deritzogun horiekintzetan gauzatzea. Honetarako, argi eduki behar dugu zorientasuna ez digula

inork ematen edo kentzen, eta harreman onak eraikitzeke garaian bakoitzak badaukagula gure ardura. Bikote harreman batean, edozein harremanetan gertatzen den moduan, gertaerak inoiz ez dira baten ardura soilik, birena baizik.

Horregatik, eta erraza ez izan arren, gure burua ezagutzeko eta gozatzeko interesgarria izan daiteken bidaia honetan argibide batzuk edukitzea lagungarria dela esango nuke: bikoteko kontratua eraikitzea. Hau da, bikote bezala zer da elkarrekin eraiki nahi duguna, zein gauza dira garrantzitsuak bikoteko partaide bakoitzarentzako, nola kudeatu bako-

tzaren espazioak eta elkarrekin eraiki nahi ditugun espazioak. Norbera eta bestearen espazioen arteko mugak, kanpora begirako mugak, familia, lagunak...

Harremanean jaso eta emandakoaren arteko oreka zaintzea bikoteko partaide bakoitzak sentitu behar du, eman eta jasotzen denaren arteko oreka dagoela. Egia da garai batzuetan gehiago ematea, eta beste batzuetan jasotzea tokatzen dela. Arazoa izaten da partaide batek sentitzen duen desoreka denboran luzatzen denean.

Bikotekidea bere itzalekin onartzea; ez dugu maitatu behar guk besteaz eraiki dugun irudia, beste dena baizik. Hau da, ezin dugu

pentzatu gure bikotea guztiz eza-gutzen dugula, egunero ezagutzeko aukera daukagu eta hori mantzentzea oso lagungarria da. Bestea ez da guk nahi duguna, bera dena baizik, bere indargune eta ahuleziekin.

Elkarrekin kooperazioa bilatu harremanetan; elkarrekin irabazten dugu.

Elkarrekin ondo pasatzeaz gain, une txarrak ere elkarrekin pasatzen ikastea. Hau da, elkarrekin irri eta negar egitea.

Bidea aberatsa suertatu daiteke kontziente eta gure barnera begiratuz egiten dugunean.

Olatz Berastegi

## Guaixe

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa  
**MAKETATZAILA:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
**ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK:** Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano  
**ZUZENTZAILEA:** Oihana Zubeldia  
**ARGITARATZAILA:** Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net  
**DISEINU ZERBITZUA:** Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

## LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hezkuntza Politikako Salburuzordeta

## SAKANA

# Arnasguneak, euskara sendotzeko, garatzeko eta hedatzeko

Tailer baten bidez herritarrak aktibatu nahi dira hizkuntzarendako eremu berriak irabazteko

Boladaka hitz batzuk modan egoten dira eta jendeak asko erabiltzen ditu. Halako zerbait gertatzen ari da arnasgune hitzarekin. Batez ere euskarari lotuta ageri da azken aldian. Hizkuntzak arnas hartzen duen tokiak dira; euskara nagusi den espazioak, eguneroko bizitzan euskara naturaltasunez erabiltzen den guneak. Espazio sozio-funtzionalak (familia, ikastetxea, lantokia...) edo espazio geografikoak izan daitezke.

Euskara Zerbitzutik azaldu digutenez, "adituek diote hizkuntza batek bizirauteko ezinbesteko dituela nagusi izan den espazioak. Espazio berean bi hizkuntzatan ezin da jardun modu iraunkorrean, beti bat nagusitzen baita. Zentzu horretan, elebitasunaren

mitoari aurre egingo zaio. Horregatik, normalizazio prozesuaren gakoetako bat euskararentzat espazioak eskuratzea da".

## Sakanako arnasguneak

Arnasgune geografikoen artean daude UEMako herriak, esaterako, Arbizu eta Etxarri Aranatz. Bietan populazioaren %70 baino gehiago euskalduna da. Hala, hizkuntza modu naturalean transmititzen da eta euskara lasai hitzegin daiteke, hori baita bertako hizkuntza naturala. Arruazuk, Ergoienak eta Urdiainek ere ezaugarri horiek dituzte.

Azken aldian kezka sortu da gune geografiko euskaldunetan distentsioa eta kontzientzia falta detektatu direlako eta euskalgintzako hainbat erakundek arnasguneek euskararen normalizazio prozesuan duten garrantzia zabalteko beharra ikusi dute. Tailerra da horretarako tresna.

## Tailerra



Martxoan, Etxarri Aranatz, Arnasguneak sendotzeko tailerra izanen da, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta Euskal Herri Euskarazek (EHE) antolatuta eta udalak eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak lagunduta. Tailerraren helburua da euskararen arnasguneek euskararen biziraupenean eta normalizazioan duten garrantzia kontzientzia hartzea, eta horiek zaintzeko zein hedatzeko dinamikak sortzea.

Tailerraren bidez herri mailan herritar taldeak arnasguneak hedatzeko, hau da, euskararendako eremu berriak irabazteko aktibatu nahi dira. Horrela, euren eguneroko bizitzan euskaraz bizi ez diren eremuak eta arazoak identifikatu, eta zailtasun horiei komunitate gisa aurre egiteko urratsak ematera bultzatu nahi da. Deialdi berezia egin zaie Arbizu eta Etxarriko euskalgintzan ari direnei baita Sakanako beste arnasguneetako eta gaiarekin sentsibilizatuta daudenei ere.

Bi orduko bi saio izanen dira: martxoaren 15ean, larunbatean, 10:00etatik 12:00etara eta martxoaren 21ean, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara. **Izen-ematea:** Martxoaren 12a baino lehen Etxarri Aranatzko Kultura Zerbitzuan (948 460 930 edo [kultura@etxarriaranatz.com](mailto:kultura@etxarriaranatz.com)), Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan (948 464 840 edo [euskara2@sakana-mank.com](mailto:euskara2@sakana-mank.com)) edo Etxarri Aranatzko Leku Ona tabernan. Tailerra doakoa da.



## Euriteek eragindako kalteak konponduta

Joan den urteko lehen seihilekoan izandako euriteek eta elurteek kalte ugari sortu zituen errepide-sarean. Nafarroako Gobernuak 207 lan egin ditu kalteak konpontzeko eta horretara 17.770.025 € bideratu ditu. Irutzungo errepideen mantenu zentroaren ardurapean dago Sakana eta zentro horren bidez 2.182.852,98 €ko baliokolanak egin dira. Kalte puntualak konpontzeko 395.853 € bideratu ziren (autobian bat, 5 erkidegoko errepide sarean eta 11 tokikoan). Zoruen mantentzerako 1.786.999,98 euro inbertitu ziren (erkidegoko sarean 2 tokitan eta tokiko sarean 14tan).

## Altsasu

# Udalarekin harremana euskaraz izateko aurreneko eskaerak

EHEk deituta dozena bat altsasuar bildu ziren herenegun udaletxe aurrean. Guztiak udalari eskaera pertsonala aurkeztuko diote bi eskarerekin. Batetik, etxean eta kalean zein udalean altsasuarrek jasoko dituzten paper, ohar, bando, inprimaki, publizitate euskarri, lanpostu deialdi eta bestelako guztiak euskaraz izatea eskatu dute. Horrekin batera, 012 telefonoko informazioa euskaraz izatea eskatu dute. Baka-

rren batek bestelako eskaerarik balu hura gehitzeko aukera izanen luke.

Horrela abiatu dute Altsasun Udalak eta biok euskaraz dinamika. Euskal Herri Euskarazek (EHE) altsasuarren eskaera pertsonalak jasoko ditu martxoan zehar, gerora udalari aurkezteko. Itziar Claverrek azaldu digunez, eskaera orri ereduak Iortia kultur gunean, Intxostiapunta gazte gunean eta gaztetxean jarri dituz-



Udalarekin harremana euskaraz nahi duten altsasuarretako batzuk.

te. Altsasuarrek haien betetzera animatu dituzte. Martxoaren 21ean Gure Etxea eraikinean jarriko dira EHEko kideak eta eskae-

ra orriak osatuta orduan aurkeztea proposatu dute. Eskaera guztiak batera aurkeztu nahi dituzte eta haien jarraipena egingen dute.

**Txiki Txiki**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialeku 2 - ALTSASU

**Igoa**  
arroi degia

948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxarri Aranatz

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiain: 948 563 763



## &gt;&gt; irurtzun

**Martxoan emakumea ardatz**

Astelehenean Emakumeari buruzko XXI. Jardunaldiak hasiko dira. Irurtzongo Emakumeen Taldeak, Kultura Kontseiluaren eta Irurtzongo Udalen laguntzaz antolatuko dira. Astelehenean Chiapasi buruzko erakusketa ikusteko aukera izanen da. Tahonan eta Pikuxarren, berriz, herriko margolarien lanak izanen dira ikusgai. Heldu den astean, gainera, Iruñera bi irteera izanen dira. Astelehenean Astelehen Lilak kontzentrazioan parte hartzea eta asteazkenean zinemara. Bestalde, martxoaren 8ko afarirako izen ematea asteartean despedituko da.



Emakumeak kalean gora eta behera.

**Egitaraua**

>> **Martxoak 3, astelehena**  
19:00etan Irurtzongo plazatik Iruñera Astelehen Lilak kontzentrazioan parte hartzeko.

>> **Martxoaren 3tik 23ra arte**  
Chiapasi buruzko erakusketa jubilatuko elkarteak.

>> **Martxoaren 3tik 30era**  
Pintura erakusketa kolektiboa La Tahonan eta Pikuxarren.

>> **Martxoak 5, asteazkena**  
18:00etan Irurtzongo plazatik Iruñera, zinemara.

>> **Martxoak 8, larunbata**  
16:30ean Kafe solasaldia, Sexismorik gabeko hizkera, sexismoa publizitatean eta hedabideetan. Hizlaria, Nagore Huegun. Kultur etxean.

>> **Martxoak 8, larunbata**  
16:30ean Kafe solasaldia, Sexismorik gabeko hizkera, sexismoa publizitatean eta hedabideetan. Hizlaria, Nagore Huegun. Kultur etxean.

>> **Martxoak 8, larunbata**  
16:30ean Kafe solasaldia, Sexismorik gabeko hizkera, sexismoa publizitatean eta hedabideetan. Hizlaria, Nagore Huegun. Kultur etxean.

Iratxon edo Pikuxarren izena eman asteartera arte. Lorena Arangoak animatuko du.

>> **Martxoak 9, igandea**  
19:30ean Emakume urrina, kontzertua eta ikus-entzunezkoak. Kultur etxean, doan.

>> **Martxoak 14, ostirala**  
18:30ean Bideo-hitzaldia: emakume maiak, duintasan koloreak. Kultur etxean.  
20:00etan eta 22:30ean De tontos y otras especies. Irurtzongo Antzerki Tailerra. Kultur etxean.

>> **Martxoak 15, larunbata**  
20:00etan De tontos y otras especies. Irurtzongo Antzerki Tailerra. Kultur etxean.

>> **Martxoak 15, larunbata**  
19:00etan De tontos y otras especies. Irurtzongo Antzerki Tailerra. Kultur etxean.

**SAKANA****Urko Aristi Tokikom-eko buru**

Euskarazko tokiko hedabideak biltzen dituen elkarteak aurten lanean ari direnak saretu eta proiektu berriak iragarri ditu Iruñerrian eta Nafarroako Mendialdean

Larunbatean egindako batzarrean zuzendaritza berrituz Tokikom-ek, tokiko hedabideen bateraguneak. Bertako kide dira Sakanako euskarazko hedabideak, Guaixe eta Beleixe. Elkartearen lehen bi urteetan presidente izan den Mikel Irizarrek Urko Aristi kazetariari utzi zion lekukoa. Gainera, Tokikomen administrazio kontseilua 8 kide izatetik 12 izatera pasa da.



## &gt;&gt; Altsasu

**“Herriaren banderak”**

**Altsasuko Geure Ikurren Alde herri ekimenak hiru masta mustu ditu San Juan, Garzia Ximenez eta Zelai kaleen bidegurutzean**

Nafarroako bandera, ikurrina eta Altsasuko bandera dituen hiru masta mustu zituen domekan Altsasuko Geure Ikurren Alde ekimenak. Ikurren Legeak Espainiako bandera udaletxean jartzera behartu zuen. Lege horrek ikurrina lege jartzeko debekua eman zuen ere. Hortaz, Geure Ikurren Alde ekimena sortu zen. “Bandera hauek ez dira kolektibo, instituzio ezta pertsona batenak ere. Bandera hauek herriak jarri ditu eta herriarenak dira”.

Hurrengo hilabeteetarako plan gintza aurkeztu du herri ekimenak. Nafarroako bandera eta Ikurrinak herriko balkoietan jartzeko gonbi-



Domekan jaso zituzten hiru banderak Altsasu erdigunean. ERKUDEN RUIZ BARROSO

tea luzatuko dute. Bigarren urrats batean “inposizioen aurrean jarra-derak eta sinboloak” defendatzeko ahalegina egitera bultzatuko dute. “Bada norbait hemen altzairu

derak eta sinboloak” defendatzeko ahalegina egitera bultzatuko dute. “Bada norbait hemen altzairu

herdoilgaitza ehun zatiekin ikusten duena. Guk bandera hauekin omenaldi xume bat egin nahi diegudintasun eta harrotasunez bandera hauengatik borrokatu dutenei”. Hiru masta horietan “gure sinboloen defentsan” lan egiten jarraitzeko borondatea “astinduko” dela goraipatu zuten. “Modu guztietako inposizioei aurre egiteko”.

Igandeko omenaldian ez ziren musika eta dantzak falta. Bandera bakoitzari zegokion omenaldia egin zioten. Hala, Nafarroako ikurrina igo zutenean Zubiondo elkar-teko kanta taldeak abestu zuen, dantzariak omenaldia egin zioten ikurrinari eta Altsasuko ereserkia abestu zen herriko bandera igo-tzen zuten bitartean. Kostuei aurre egiteko bonoak saldu ziren eta hurrengo hilabeteetan egingo duten deialdian parte hartzeko ikurrinak eta Nafarroako banderak saldu ziren ere.

## &gt;&gt; Altsasu

**Altsasuko Udala zinegotzi guztiekin**

**Bi urte hutsik egondako aulkia bete dute sozialistek Medinarekin**

Herenegun egindako bilkuran David Medinak zinegotzi kargua hartu zuen. Hala, bi urtez hutsik egon den aulkia bete du alderdi sozialistak. PSNk hauteskondeetara Altsasun aurkeztutako zerrendako azkena da Medina. Aurretik zeuden udal ardura hartzeari uko egin diote. David Medina Sakanako UGTko arduraduna da eta Braulio Salvadorrekin batera zinegotzi sozialistak dira Altsasun.

**Emakumeendako doako bi tailer**

**Martxoaren 5era arte eman daitezke izena autodefentsa eta lan munduan txertatzeko trebakuntza tailerretan**

Emakumearen Bilguneak Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta programa berezia antolatuko du. *Emakume guztiek, eskubide guztiak, egunero* lelo duen egitarauko aurreneko bi eskaintzak bi tailer dira. Lehenengoan autodefentsa landuko dute, errespetua lantzeko. 12 orduko iraupena du eta Cristina

luzatuko dute. Bigarren urrats batean “inposizioen aurrean jarra-derak eta sinboloak” defendatzeko ahalegina egitera bultzatuko dute. “Bada norbait hemen altzairu

Lizarragak emanen du. Labadero eraikinean izanen da martxoko ostiraletan, 9:30etik 12:30era.

Udal eskaintzaren barruan ere lan munduan txertatzeko trebakuntza tailerra dago. 12 orduko iraupena duen ikastaroa martxoaren 11, 13, 18 eta 20an izanen da (asteartea eta osteguna), 9:30etik 12:30era, Gure Etxea eraikinean.

**Zinemara doan**

**Martxoaren 12an, 20an eta 27an zinemara doan joateko aukera izanen dute emakumeak. Gonbidapenak ordubete lehenago jaso beharko dituzte lortian.**

Dohainik eman daitezke izena 012ra hots eginez.

**Zelandi kiroldegia fisioterapia eta masaje zerbitzua izanen du**

**Hura eman nahi dutenak martxoaren 11ra arte aurkeztu ditzakete eskaintzak kiroldegian**

Atabo Altsasu SL enpresaren bidez Altsasuko Udalak Zelandi kiroldegian igerileku estaliak eta gimnasio zerbitzuak eskaintzen ditu gaur egun. Bada, maiatzetik aurrera fisioterapia eta masaje zerbitzua eskaintza berria izanen du. Zerbitzua hori kontratatuzko Atabo Altsasu enpresa publikoak deialdia egin du. Fisioterapeuta titulua duten pertsona guztiak aurkeztu daitezke deialdi horretara. Eskaintzak jaso eta puntu gehien jaso dituenari emanen dio udalak zerbitzua.

Zerbitzua emateko Zelandi kiroldegian gela bat egokitzea aurreikusiko du Atabo Altsasu enpresak. Zerbitzua emateko Zelandi kiroldegian gela bat egokitzea aurreikusiko du Atabo Altsasu enpresak. Zerbitzua emateko Zelandi kiroldegian gela bat egokitzea aurreikusiko du Atabo Altsasu enpresak.



Maiatzetik aurrera zerbitzu berria izanen da kiroldegian.

bitzua kiroldegiko bazkideek eta bazkide ez direnek erabiltzeko aukera izanen dute. Azken horiek gares-

tiago ordainduko dute. Zerbitzua ematen dutenean jakinaraziko dituzte egunak eta ordutegiak.

**Oinarriak**

<http://www.concursofotograficoras.blogspot.com.es/>



## SAKANA

# Euskaraz bizitzeko oztopoak salatzen du Nafarroako euskal komunitateak protesta deitu du

**Manifestazioa antolatu dute martxoaren 22rako. 17:30ean, Iruñeko Antoniutti parketik abiatuko da**

Larunbatean makina bat pertsona ahoa eskuarekin tapatuta zutela agertu ziren Iruñeko Gaztelu enparantzan. Haien artean zeuden Garbiñe Petriati (Kontseilua), Eneka Maiz (UEMA) eta Aitor Karasastorre (Mank). Euskalgintzako kideek agerraldi horrekin salatu nahi zuten Nafarroan euskaraz bizi nahi dugunok "Nafarroako Gobernuaren aldetik gero eta oztopo gehiago" dugula. Prentsa agerraldian izan ziren euskalgintzako kideek ziurtatu zuten, "euskaraz ari garenek arrotz gisa tratatzen gaitu gobernuak, eta desagerrarazi nahi gaitu, gure lurretik bota".

Nafarroako Gobernuak euskarari dioen "amorrua, behin eta berriz, hartzen dituen erabakietan, egiten dituen adierazpenetan argi ikusten" dela esan zuten euskaltzale nafarrek. Foru administrazioari leporatu zioten Euskararen

Lege "eskasak ezartzen duena bera ere ez du betetzen hainbat arlotan, eta lege horren hainbat atal murriztu egin ditu, egin daitezkeen garapenik kaltegarriena eginda".

Horregatik, esan zuten "Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika itxuragabea salatu, euskaldunok hemen gaudela erakutsi eta eraso zerrenda amaigabeari bukaera emateko eskatzen diogu gobernuari". Horrekin batera, euskararen aldeko benetako hizkuntza politika eraginkorra aldarrikatu dute. "Hizkuntza politika zuzen batek ekarriko baitu hizkuntza normalizazioak".

Manifestazioan antolatu dutenek dei egin diote euskal komunitate osoari "dinamika sozial indartsua abian jartzera, euskaraz bizitzeko behar diren pausoak emanez". Ziurtatu dutenez, aldaketa horretan pertsonak izanen dira aldaketaren gakoak: "euskara erabiliz bizitzaren arlo guztietan, espazioak euskaldunak, euskara ikasiz, euskaldun bezala harro agertuz".

## Bidegabekeria zerrenda luzea



Euskarazko irakaskuntza zabaltzearen kontra Euskararen Legeak ezartzen duen zonifikazioa erabiltzea, D ereduak kakazteko ahaleginak (Guardia Zibilaren sasitxostena), elkarbizitzaren aitzakian D ereduko ikastetxeen funtzionamendua erdaldundu nahia, Nafarroan ETB sare digitalean ikusteko debekua eta isunak (haurrak euskarazko marrazki bizidunak gabe erdaraz biziartzeko), Euskalerrria irratiari lizentziarik ez emateko trikimailu lotsagarriak, herrietako euskarazko komunikabideak diru-laguntzarik gabe uztea, udalerrietako euskara zerbitzuak bezala, euskal eremuko udalerrietan hainbat zerbitzu euskaraz jasotzea galaraztea (liburutegietan, osasun-etxeetan euskaraz ez dakiten langileak jarrita), herriak sortutako euskaltegiak itotzea diru-laguntzarik gabe utziz...

### » Irurtzun



Blogaren bidez ITB ikusten da.

### Irurtzun Euskaraz bloga berri da

Aizpea euskara taldeak sustatuta duela bost urte martxan jarri zen Irurtzun Euskaraz bloga. Herriko albisteak euskaraz emateko sortutako ekimen horren bidez, euskararen erabilera sustatu nahi zuten Aizpeak. Teknologia aurrera egitearekin batera bloga zahartzen joan da eta hura egokitze premia sumatu dute sustatzaileek. Berrikuntzak erronka berriei eusteko gaitasuna emanen diela uste dute.

www.irurtzuneuskaraz.com helbide berrituan albisteak argazkien eremuan edo albisteendako espazioan izanen dira. Gainera, urtekariak eta Irurtzun Telebistako saioek orri propioak izanen dituzte. Berrikuntza horiekin batera agenda ere gaineratu dute, herriko gertakari nagusien berri emateko.

Sustatzaileek bloga egonkortuta dagoela adierazi digute. Hilean, batz bestea, 600 bisita ditu. Euskara taldearen, Pikuxarren, Iratxoren eta Orritzen berriak zabaldu ditu nagusiki orain arte blogak. Orain herri guztira zabalteko asmoa dute Aizpeak.

### » Altsasu

### LABek lan istripu bat salatu du

Sindikatu abertzaleak jakinarazi duenez, lan istripu larria izan zuen "kontratu prekarioa" zuen langile gazte batek Agricola Sakana enpresan udan. Ezbeharrak lan ikuskaritzan salatu zen eta epaitegian lan eskubideak defendatzeko demanda aurkeztu da. LABetik azaldu dutenez, "istripuaren arrazoi nagusia prebentzio neurri falta izan zen eta bere lana egiterakoan tresna egokiak eskuragarri ez izatea".

Prekarietatearen kontra egin dute LABetik: "lan erritmo altuak eta prebentzio neurrien falta daude istripu honen atzean". Gazteek askotan halako egoerak pairatzen dituztela nabarmendu du. "Prekarietatea sufritzen dute lan baldintzak hobetuko direnaren esperantzarekin, eta halakoetan prebentzio neurrien aldarrikapena beste maila batean geratzen da".

### SAKANA

## Bilboko foroaren kontra egiteko deialdiak

**Astelehenean Sakanatik autobusa abiatuko da; ohiko tokietan eman daiteke izena**

Foro Global España 2014 gailurrean elkartuko dira munduko enpresa eta finantza erakunde nagusien

ordezkariak astelehenean. Krisiaren aitzakiarekin herritarren eskubideetan egindako murrizketak salatu eta bestelako eredu baten aldeko aldarrikapena egingen dute gizarte eragileek Bilbon.

### Egitaraua

» Otsailak 28, ostirala  
11:00etan Krisia eta gizarte errealtatearen inguruko beste begiradak mahai-ingurua. Sarrikan, Hegoa Institutuak antolatua.

» Martxoak 2, igandea.  
12:00etan Jesusen Bihotzetik hasita manifestazioa, CCOO, UGT eta USO.  
15:00etatik 19:00etara EHBilduren nazioarteko topaketak, Zabalguneko merkatuan. Hizlariak: Syriza (Grezia), Sinn Fein (Irlanda), Bloco de Esquerda

(Portugal), UDB (Bretania), Sinistra Ecologia Liberta (Italia), Die Linke (Alemania), BNG.

» Martxoak 3, astelehena  
10:00etan Zutabeak aterako dira Jesusen Bihotzetik eta Arriagatik Guggenheimerara.  
16:30ean Mertxe Larrañaga (EHUko irakaslea), Yayo Herrero (Madrilgo antropologo sozial eta kulturala, ekologista aktibista) eta Iñaki Moreno (Karta Sozialaren talde sustatzaileko kidea). Hitzaldiak, EHUko Paraninfoan.  
19:00etan Manifestazioa Euskadi Plazatik abiatuta (Iberdrola Dorrearen ondoan).

### » Arruazu



Joan den urtean mustutako kioskoa.

### Dagoena mantentzeko

Arruazuko Udalak asmo horrekin onartu du aurtengo aurrekontua. Ematen dituen zerbitzuak mantentzeko 91.691 euroko aurrekontu du Arruazuko Udalak. Pasa den urtean zeharbideko lanak despeditu zituzten eta haiek ordaindu ditu dagoeneko. Kioskoko lanetako kontu batzuk dira zorretan dituenak, baina udalak horiek ere aurki kenduko ditu.

**PPSOE,**  
**ETB**  
**digitala**  
**Nafarroan**  
**orain!**  
**Berria erosi taldea**

**BILTOKI**  
**TABERNA • JATETXEA**  
Pintxoak  
Bokatak  
Plater konbinatuak  
Karta  
Asteleheneetik ostiralera  
Eguneko menua  
8,25€  
Asteburuetan  
Menu berezia 25€  
948 467 876 • Altsasu

**HIJOS DE GOIKOETXEA**  
EDARI BANATZAILEA  
*Zatoz gure ardotezia ezagutzera!*  
Geltoki auzoa 11 • Altsasu  
948 467 317 • 696 979 279  
hijosdegoikoetxea@yahoo.es



## SAKANA

## Kinto-garaia

**Kinto ospakizunak Uharte Arakilen, Lakuntzan, Arbizon eta Etxarri Aranatzan**

## UHARTE ARAKIL

Aurten 10 kintok, 5 neskek eta 5 mutilak, ospatuko dituzte kinto ospakizunak Uharte Arakilen: Amagoia Hermosok, Itziar Martiarenak, Ariane Razkinek, Itsaso Ijurkok, Ana Irigoienek, Xabi Razkinek, Migel Angel Sanchezek, Ibon Perezek, Mikel Beltzak eta Jon Zambranok. Atzo, ostegunarekin, hasi ziren ospakizunak, igandearaino luzatuko direnak. Udalak mojen etxeko gela bat utzi die eta bertan lo eginen dute ospakizunak irauten duten bitartean. Eskean jasotakoarekin hamaiketakoak, bazkariak eta afariak egingo dituzte.

## LAKUNTZA

17 kinto dira Lakuntzan: Estefania Malara, Janire Lopez, Ane Bañasco, Uxue Callejas, Amets Lertxundi, Maialen Ciria, Eunat Redin, Leire Olazarán, Josu Mozo, Jon Goikoetxea, Mikel Flores, Iñaki Mendieta, Iker Arregi, Mikel Arratibel, Iñaki Zubieta, Judith Sao Roque eta Aitana Arroki. Kinto gazteekin eta kinto zaharrek batera ospatuko dute festa, gutzira 26 kide. Astelehenean hasiko dira eskean, eta gaua Tolosako inauterietan emango dute, autobusa Arbizuko kintoekin partekatuz. Asteartean eskean eta bazkari-afarietan ibiliko dira, eta eguna Altsasuko inauterietan despedituko dute.

## ARBIZU

9 kinto bilduko dira euren festa ospatzera: Amets Flores, Ane Zaldua, Olaia Eizagirre, Irati Lakuntza, Amañur Lakuntza, Beñat Jaka, Jokin Urzelai, Aitor Lopez de Sabando eta Alex Jaka. Gaur, ostiralarekin, afaltzera bilduko dira. Bihar ihote ospakizunetan parte hartuko dute, eta igandean etxetzexediruz eskean ibiliko dira. Gauean Tolosara joango dira. Astelehenean eskean jarraituko dute eta gauean, atzera ere Tolosara joango dira. Astearte arratsaldean haurrendako jolasak antolatuko dituzte eta amiñ handia eta aittun txikia erreko dituzte. Ondoren, herri afaria prestatuko dute.

## ETXARRI ARANATZ

Etxarriko kintoek astelehenean afariarekin hasiko dituzte ospakizunak, baina igandeko Zalduniyoteko elkarkez elkarteko ibilbidean ere parte hartuko dute. Aurten 21 kintodaude: Aimar Iriarte, Aiora Unanua, Amañur Lakuntza, Andoni Agirre, Anne Azkona, Ariane Mendiola, Ibai Irigoien, Irati Lakuntza, Ixabel Begiristain, Jon Arakama, Joritz Etxeberria, Lide Huizi, June Leza, Maider Gonzalez, Mikel Maiza Ledesma, Nerea Igoa, Olaia Eizagirre, Mikel Maiza "Razkin", Adrian Garciaandia, Saioa Yeregi eta Uxue Etxeberria. Astelehenean afaldu eta gero, kinto zaharrek batera Tolosara joango dira. Astearte goizean, kaxeroz jantzi eta etxetzexeko eskearekin endiote, musika lagun moztortuen segizioa ondolan dutela. Parranda ordu txikieta arte luzatuko da. Bestalde, San Kiriako, San Adrian eta Ama Birjiñaren egunean Dantzakia dantzatuko dute.

## Inauteriak Sakanan

## Gora ihoteak!

Ihote eta moztorro festen garaia da

## Irurtzun

## Gaur txikienak, bihar herri guztia

>> **Otsailak 28, ostirala**

**10:15ean** Eskolan, moztorro desfilea, hamaiketakoak. Kalejira Irurtzunen barna. Marigorri erretzea.

>> **Martxoak 1, larunbata**

**12:00etan** Altsasuko momotxorroak eta Irurtzongo joaldunak eta pertsonaia mitologikoak.

**14:00etan** Bazkaria eta inauteri dantza, San Martin jubilatuak elkartean.

**14:30ean** Inauterietako herri bazkaria.

**15:30ean** Inauterietako makillajea, Irurtzongo udaletxean.

**16:00etan** Inauterietako herri kalejira, eskolatik aterata.

**17:30ean** Moztortutako pertsonen eta koadrilen elkarretaratzea, plazan.

**18:00etan** Inauteri desfilea, plazan.

**18:30ean** Herri txistorrada eta musika, plazan.

**21:00etan** Larrazpitek musika (Larrazpi Gazte Elkarte).

\*Oharra: Taldeek desfilerako euren musika propioa eraman dezakete. Horretarako, talde bakoitzak bere musika CD edo USB batean eraman beharko du Pikuxarrera edo Kultur Etxera, edo barazkigune@hotmail.com helbidera bidali.

## Uharte Arakil

## Mozorro desfilea larunbatean

Kinto ospakizunekin bat egiten dute inauteriek Uharte Arakilen. Moztortortuen eguna biharkoa izanen da. Aurten, nobedade moduan, goizean moztortutako kazerolada edo trikipoteoa egiteko asmoa dago. Ondoren, moztortutako Aralar Mendi elkartean eta beste hainbat tokitan bilduko dira bazkaltzeko, 14:30ean. Majo bazkaldu ondoren, 17:30ak aldera kalejira koloretsua abiatuko da handik, musika lagun, herria zeharkatuko duena. Koadrilaka moztortuta ibiliko dira uhar-tearrak eta aipatu digutenez, hiruzpalau karro prestatuko dituzte. Kalejiraren ondoren, ihoteetako panpiñari su emango zaio eta haurrendako txokolatada egongo da plazan, eta parrandak ordu txikiak arte segituko du.

## Arruazu

## Haurrak nagusi

Etxeko txikienak izanen dira Arbazuko ihoteen protagonistak. Haien moztorroekin 17:00ak aldera plaza-aterako dira. Ziurrenik, moztorro jantzitakorik ez dela faltako. Moztorroak herri ihoteko Arruazuko pertsonaia dira. Burua estalita eta zigorra eskuan, jendea berotu nahian ibiliko dira. Etxez etxe egindako errondan bildutako jaki eta diruarekin, txikiek Itur-Gain elkartean



merienda ederra egiten dute.

## Lakuntza

## Bihar moztorro festa, asteartean zatamarroen eguna

Larunbatean moztorro festa eta parranda ez dira faltako Lakuntzan. Ihoteak girotzeko etxeko balkoiak apaintzeko deia ere egin dute antolatzaileek. Bestalde, ihote giroak jarraipena izanen du asteartean. Etxeko txikienak moztortutako dira eta beraiendako ekitaldi politik antolatuko dituzte. Eguneko protagonistak, zatamarroak, 19:00etan aterako dira kalera. Soinean arropa eta zaku zaharrak jantzita, aurpegia zapi batekin estalita, buruan lastozko txapela eta eskuan erratza, sardea edo urritz makila dutela, jendearen atzetik ibiliko dira, izutu eta haiek berotzeko asmoz. Haiek zirikatzeko "Zatamarro begi-gorri urtien behin etorri" kantatuko diete haurrek.

>> **Otsailak 9, larunbata**

**12:00etan** Moztorro topaketa herriko plazan. Auzatea. Txaranga herrian barna.

**14:30ean** Bazkaria Herriko Ostatuan. Bertan apuntatu behar da.

**17:30ean** Karaokea eta dantza udaletxe parean.

>> **Otsailak 12, asteartea**

**17:00etan** Txokolatada udaletxe parean, Mikel Arregi kalean, musikaz girotua.

**19:00etan** Zatamarroak. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian egingo da.

## Arbizu

## Bihar moztorroak eta asteartean Aittun handiya eta Amiñ txikiya

Arbizuarrek bi egunetan ospatzen dituzte ihoteak. Bihar, larunbatean, moztorro eguna dute. Eguerdian, moztortutako koadrilek herria hartuko dute, gurdi eta guzti. 12:00etan aatea izango da eta, ordu berean, moztorro desfilea. 15:00etan, herri bazkaria egiten da. Aurten, kirol-

degian egin beharrean Aldabide elkartean egingo dute (txartelak Karrikan salgai).

Indarrak berreskuratu ondoren, arbizuarrak dantzan jarriko dira. Giroa berotzeko, 20:00etatik 22:00etara eta 24:00etatik 2:00etara musika egongo da Argi Bidea elkartean. Giroa ziurtatuta dago.

Asteartean txatarren eguna ospatuko dute. Goizeko 11:00etan herriko gazteak eta haurrak pixkeet eskien aterako dira trikitixarekin. Arratsaldea jardueraz beteta dator. 17:00etan haurrendako jokoak eta jolasak egongo dira. 19:00etan txistorra jatea egiten da herriko plazan eta 20:00etan Arbizuko iyotetako protagonista Aittun haundiya eta Amiñ txikiya erreko dituzte plazan. Jaia girotzeko txatarra jantzteko deia egin diete arbizuarrak. Eguna agurtzeko, 21:30ean Aldabide elkartean herri afaria antolatu dute.

## Unanua

## Igandean eta asteartean, badatoz Mamuxarroak!

Unanuko mamuxarroek ez dute aurkezpenik behar. Kamixeta eta gal-tzontzilo luze zuriak, gerriko beltza edo gorria, pazpalinak eta zatak soinean dituztela eta aurpegia metalzko katolaz estalita, kalera aterako dira igandean eta asteartean. Makila arin-arin mugitzen dute eta

inor gutxi libratzen da hanketan makilakada majoa hartzeaz.

Igandean mamuxarro txikiak izanen dira protagonista, eta asteartean mamuxarro handiak. Bi egunetan arratsaldeko 16:30ak edo 17:00ak aldera aterako dira mamuxarroak, eta 18:00ak arte Unanuko karriketean gora eta behera ibiliko dira, jendea berotzen. Korrikaldietatik errekueratzeke, auzatea egiten da eliz atean, musikak lagunduta. Ohi bezala, astearte ihotean herriko emakumeek prestatutako piperopil goxoak ez dira faltako. Gauean, herritarrek afaria egiten dute eskean ateratakoarekin.

## Lizarraga

## Inauteriak berreskuratuta, ospakizunak bihar

Bihar, larunbatearekin, ihoteetan murgilduko dira lizarragatarrak. Lehen, herri eskolaz zegoen garaian, haurrak moztortuta eta eskean ibiltzen ziren Lizarragan, baina ohitura galdu zen, eta iaz berreskuratu zuten ospakizuna, arrakasta handiz. Horrela, bihar, eguerdian haur, gazte eta heldu guztiak moztortutako dira. Azi Iturri elkartean bapo bazkaldu, eta arratsaldean herrian barna eskean ibiliko dira moztortutako lizarragatarrak, musika lagun. Etxeetan eskean jasotakoarekin, gainera, afaria egiten dute atzera ere elkartean.





## Inauteriak Sakanan

## Etxarri Aranatz

## Igandean zalduniyote, eta asteartean eskoziarres mozorrotzeko deia

Garizumako aurreko hiru ostirale-tan ihote ospakizunak izan dira Etxarri Aranatzen: Gizakunde, Andre-kunde eta Garikunde ospatu dira. Ihoteak igandeko zalduniyoterekin eta astearteyoterekin despedituko dira. Astearteyotean goizetik hasi-ta eskoziarres mozorrotzeko deia egin du iyote batzordeak.

## &gt;&gt; Martxoak 2, igandea.

## Zalduniyote: Haurrak txatarras mozorrotzeko eguna.

Herriko elkarteetatik txatar ibilbidea.

**16:30ean** Karriestu elkartearen txatarrak prestatzeko mozorro tailerra (txatar mozorroa duenak eraman dezala). Ondoren, Udaberri elkartearen kantu saioa eta haurrendako bendua.

**18:00etan** Hartzabal elkartearen txokolatada eta marrazki txokoa. Segidan gaiteroekin kalejira, Larrañeta elkartearaino. Bukatzeko, Larrañeta elkartearen txatar pintxo poteoa eta dantza saioa.

## &gt;&gt; Martxoak 4, astearteyote.

## Eskoziarres janzteko proposa-mena.

**10:00etatik 14:30era** Herrian zehar trikitalariekin kalejira.

Eguerdian, plazan, musika saioa.

**14:00etan** Bazkari herrikoia Karriestu elkartearen (A13 ekimena).

**17:00etan** Txokolatada (Andra Mari ikastola).

**17:00etatik 19:30era** Trikitalariekin kalejira herrian zehar.

**17:30ean** Kalejira herrian zehar (A13 ekimena).

**18:00etan** "Diskoteke" haur animazioa.

**19:30etik 21:30etara eta 22:30etik 2:00etara** Dantzaldia Orotz taldearekin. (Eguraldiaren arabera, ekitaldiak plazan edo pilotalekuan izanen dira.)

\* Goizetik hasita mozorrotu eta ongi pasatzeko deia egin du iyote batzordeak.

## Bakaiku

## Larunbatean kamarroek zeharkatuko dute herria. Asteartean txikiak protagonista

Bakarrekotzea elkartearen bihar egin den bazkariarekin hasiko dira ihote ospakizunak, 14:30ean. Majo bazkaldu ondoren, Bakaikuko Gazte Asanbladak kamarroz janzteko egindako gonbitea onartu dutenek euren eraldaketa hasikodute. Behin kamarro beldurgarriez jantzita, 18:00ak aldera etxez etxeko erronda eginen du segizioak, lehen lehenik trenbide aldera jaitsiz. Musika lagun, kamarroekin batera gurdia, golda eta suko hautsa barratuko dutenak izanen dira. Errondak parrandari emanen dio segida.

Asteartean, Bakaikuko gurasoek antolatuta, haurren ihotea ospatuko da. Eguerdirako mozorrotuta egonen dira bakaikuar txikiak. Jantziak lagun, jolasten ariko dira. 14:00ak aldera, elkartearen, mahai inguruan, eseriko dira, bazkaltzera. Santa Ageda kantuan eta eskean bildutakoarekin ordaintzen da bazkaria. Arratsaldean, kalejira koloretsuak zeharkatu-



ko du Bakaiku, plazan despedituko dena, txokolate beroa edanez.

## Iturmendi

## Igandean kalejira eta asteartean jitomoxorroak

Iturmendin domeka dute inauterietako egun nagusia. 17:00etan mozorroen kalejira izanen da, buruhandiekin, eta festarekin bat eginen dute herritar guztiek. Haurren gozamerako, urtero bezala, kalejiran parte hartuko du dragoi miragarriak. Mozorro giroan, iturmendiarrek buelta emanen diote herriari. Arratsalde borobiltzeko, 18:00etan txokolatada eginen dute frontoian. Eguraldiak laguntzen ez badu Aritzaga elkartearen babestuko dira. Asteartean ihote giroak jarraipena izanen du Aitzkozar elkartearen. 19:00ak aldera jitomoxorroen kalejira zaratsua eginen dute herrian barna, eta, ondoren, Aitzkozar elkartearen beron elkartuko dira afaltzera.

## Urdiain

## Mantaguna, momoxarro txikiak eta handiak

Larunbatean Mantaguna ospatuko da Urdiainen, ihotei hasiera emanen. Arpilazko mantak edo zakuak soinean jantzita, ikusi ahal izateko bi zulo eginda, inguruan dituztenak zirikatuta eta berotuko dituzte mozorrotuek. "Mantaguna gura, gura, gura, zakuak kunkuna" kantatuko diete.

Domekan momoxarro txikien txanda izanen da. Iluntzen duenetik, aurrera eta atzera ibiliko dira momoxarro txikiak, jendearen atzetik, haiek berotzeko asmoz. Horretaz gain, mozorro ezberdinez jantzita egongo dira txikiak. 20:00etan txokolatada izanen da Urdiaingo plazan, eta eguraldi txarra eginez gero, frontoian. Momoxarro handien eguna astearte arratsaldekoa da. Momoxarroek korrikaldi ederrak eginaraziko diz-

kiete 18:00etatik aurrera, iluntzen duenetik aurrera, kooperatiba parean bilduko direnei. "Momoxarro xirikiti xarro, esportero molinero, zaia janda putza gero, arre konpañero" kantatuko diete, momoxarroen korrikaldia sortuz. Bestalde, sorgin afaririk ere izanen da asteartean.

Momoxarroak, bai txikiak bai handiak, goitik behera janzten dira, aurpegia bera ere estaliz. Hainbat itxura har dezakete: ardi-narruak dituzte batzuek, buruan txano konikoa jantziko dute besteek, ohe-estalkiak, farak eta beste. Arratsalde osoa mozorrotuta egon eta gero, 20:00etan aurpegiko tapakiak kentzea da ohitura.

## Altsasu

## Igandean txikien ihauteria eta asteartean herri inauteri ezaguna

Mozorro garaia domekan hasiko da Altsasun, eta heldu den larunbatean despedituko da. Lehenik eta behin, Iortia Kultur Gunean herriko ikastetxeetako ikasleen marrazkien erakusketak dago ikusgai. Ihoteen ikuspegi koloretsua eman dute txikiak. Ikastetxeetako Guraso elkarteak izan dira erakusketak antolatu dutenak, Altsasuko Inauteri Batzordearekin.

Ospakizunei dagokienez, domekan inauteri txikia ospatuko da, asteartean herri inauteri entzutetsua eta hurrengo larunbatean piñata eguna.

## &gt;&gt; Martxoak 2, domeka

**17:30ean** Erraldoiak eta buruhandiak Iortian.

**17:30etik 21:00etara** Txokolate jana eta mozorro festa A ze nolako parranda taldearekin Foru Plazan. Zezensuzkoa. Euria eginez gero Burunda frontoian.

## &gt;&gt; Martxoak 4, asteartea

**14:30ean** Herri bazkaria, Burunda eraikinean (8 €).

**16:30ean** Puska biltzea, Alde Zaharrean.

**16:30ean** Momotxorro txikien elkarretaratzea Zumalakarregi plazan. Txokolate jana eta odolaren erritua.

**17:00etan** Momotxorro txikien irteera,

Agoizko burrunbak, Txorongo Txarangak, Musika eskolako dantzari eta fanfarreak eta Irurtzungo Orritz taldearen joaldunek eta pertsonaia mitologikoen alaituko dute giroa.

**17:30ean** Herri merienda bildutako puskekin, Gure Etxean.

**18:00etan** Momotxorro txikiak Foru plazara iritsiko dira. Momotxorro txikien dantza. Ondoren momonsuzkoa (suzko momotxorroa).

**18:30ean** Kalejira Zelandiraino Orritz taldearekin. Torrada dastatzea Gure Etxean.

**18:45ean** Odolaren erritua eta herri inauteriko elkarretaratzea, Zelandi pilotalekuan.

**19:00etan** Dantzaldia Ibai Berriak taldearekin Foru plazan.

**19:30ean** Irteera Zelanditik. Haize Berriak fanfarrea, Txorongo txaranga, Altsasuko txistulariak, Etxarriko gaiteroak, Xapiru trikixita eskola eta Agoizko burrunbaz lagunduta.

Akelarre eta sorginen dantza, Zumalakarregi plazan.

Ezkontza eta gosagarria Santa Kruz kalean.

**21:00etan** Foru plazara iristea eta Momotxorroen dantza.

**21:30ean** Ezkila jotzea, mozorroak kentzea eta akaberako momotxorroen dantza.

**22:00etatik 00:30era** Dantzaldia Ibai Berriak taldearekin.

## MATXIN GAIZTOAK

Altsasuko Gazte Asanbladak antolatuta, Matxin gaiztoek aktiboki hartuko dute parte astearte inauterian. Bazkari herrikoien ondoren bilkura egingo dute gaztetxean. Ondoren, kalejiran ibiliko dira Alde Zaharrean barna eta janari bilketa eginen dute. 18:30ean auzatea izanen da plazan eta 19:30ean herri inauteriko irteeran hartuko dute parte.

\* Oharra: Hurrengo larunbatean, hilak 8,

piñata inauteria izanen da.

## Olatzagutia

## Hiri inauterien txanda

Aurreko asteburuan herri-ihoteak ospatu zituzten olatziarrek. Ostira-lean Mari Arrokarri, Urbasan bizi den jainkosari, harrera egin zioten eta larunbateko herri-ihotean zamarraundiak, zamartxikiak, maskarritak, iratxoak, damak eta sorginak atera ziren kalean, segizio ederra osatuz. Bukaeran, zortzikoa dantzatu zuten plazan. Larunbatean hiri ihotea ospatuko dute eta asteartean, aldiz, txikiak mozorrotuko dira.

## &gt;&gt; Martxoak 1, larunbata.

## Hiri ihotea

**12:00etan** Areto futbol pistan elkartu eta mozorrotuen kalejira eginen da herrian barna.

**14:30ean** Herri bazkaria frontoian.

**17:00etatik 19:00etara** Baralde Txaranga.

**20:00etatik 22:00etara** Dantzaldia plazan (eguraldiak laguntzen ez badu, frontoian).

**00:00etatik 3:00etara** Dantzaldia plazan.

## &gt;&gt; Martxoak 4, asteartea. Haur ihotea

**17:00etan** Merendua eta haur animazioa: A ze nolako parranda!

**22:30ean** Sardinaren hileta, gaztetxetik San Migel plazara. Hiletarako egoki janztea eskatzen dute. Ihoteen bukaeran torradak gaztetxetan.

## Ziordia

## Mozorro txikiak

Ziordiko haurrak izanen dira beste behin garizuma bezperako eguneko protagonistak. Asteartean, 17:00ak aldera, haur ziordiar guztiak bilduko dira, mozorrotuta. Kalejira alai osatuko dute, musika lagun. Ibilbidea despeditu ondoren, Errekarte elkartearen txokolate gozoa merendatuko dute.

## MOZORRO ORIGINALENAK SARIA IZANGO DU

Ziordiko liburutegiak inauterietako parte-hartzea bulkatzeko inauterietako lehiaketa deitu du. Mozorro originalena sarituko da. Sari banaketa asteazkenean egingo da, martxoaren 5ean, liburutegian.

Bestalde, eta inauteriak gaia hartuta, inauteriak marraztu edo inauterietan buruz ipuin bat idazteko gonbita egin du liburutegiak. Lanak martxoaren 7rako aurkeztu behar dira liburutegian bertan.

LASTER ZUEKIN!

AUTO TALLER CALVO

**MEKANIKA OROKORRA**

**MULTIMARKA**

**ELEKTRIZITATEA**

**DIAGNOSIA**

**INJEKZIOA**

**AIRE GIROTUA**

**PNEUMATIKOAK**

**BALAZTAK**

Juan José Calvo. 948 467 073 • Oeste industrialdea, 36 • Olazti





GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 564 355**  
**679 160 116**  
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



## Gorka Larrea Ondarra

II. urteurrena

Egunero zaitugu  
oroitzen,  
uneoro zaitugu  
sentitzen,

denbora aurrera  
doan arren  
gure artean  
zaitugu sentitzen.

**Amiña Katalina, izeba Pilar, Koldo, Irene, Oihane eta Maitane**

Arbizu-Bakaiku



## Gorka Larrea Ondarra

II. urteurrena

Haizea bezala,  
eskuen artetik  
ihes egin zenuen,  
baina betirako egongo zara  
gure bihotzetan.

**Zure lagunak**

Bakaiku



## Jose Ignacio Gurutxarri Lakuntza

I. urteurrena

Samindurik dugu bihotza  
motel bizitzaren garra.  
Gaur faltan sumatzen dugu  
zuk emandako indarra.

Lehen urteurreneko meza, martxoaren 2an, igandean,  
13:15ean Lizarraga Ergoienako elizan.

**Zue fameliye**



## Genaro Paniagua Otxoteko

"...Txakur txuri bat atean,  
iturritxo bat alboan,  
han bizi naiz ni pakean."

Eskerrik asko deni bihotzez.

**Genaroin fameliyek**



**Oroigarriak  
egiten  
ditugu**

**Nahi duzun  
argazki  
eta testuarekin**

**GUIAIXE**  
KOMUNIKAZIOA

**948 564 275**  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
argi@guaixe.net

## Jose Begiristain Fernandino

Zu onduen  
majo pasatakuek  
betiko  
gordeko ttugu.

**Illebak**



Eskertzak eta eskelak osteguneko  
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua zorion@guaixe.net-era  
edo hots egin  
948 564 275 telefonora**

**guaixe.iragarkilaburrak.com**

### NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**  
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,  
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

### HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net)

#### Lana/ Negozioak

##### LAN ESKAINTZA

**BIOENER** enpresak komertziala behar du. Sakanan biomasa beragailuen instalakuntzak saltzeko (egurra, pellet, ezpalak). Interesatuak deitu 608 78 46 94 edo [jaimibir@gmail.com](mailto:jaimibir@gmail.com) helbidera idatzi.

#### Ibilgailuak

##### MOTORRA

##### SALGAI

**Vespino motorra paperekin salgai.** Etxarrin. Interesatuak hots egin dezatela 629 40 32 18 telefonora.

#### Higiezinak

##### ETXEBIZITZAK

##### ERRENTAN EMAN

**Altsasu: pisua alokatzen da.** Beheko solairuan, mustutzeko. 3 logela, 2 komun, egongela, terraza handia eta bi aparkaleku. Altzariek. Amandrea kalea, bizitegi-auzoa. 672- 07 96 18 - 948 46 72 69.

#### Ikastaroak

**AES.** "Oinarriko enpresa-ingelera", Arbizon, 70 ordu, apirila-ekaina; "Enpresa ingelera II", Arbizon, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarriketa praktikak", Arbizon, 40 ordu, azaroa-abendua; "Ekoizpena eta biltegien kudeaketa:

denbora eta kostuen murrizketa", Arbizon, 80 ordu, apirila-ekaina; "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizon, 30 ordu, iraila-urria; "ETEei aplikatutako trebatasun pertsonalak", Arbizon, 35 ordu, ekaina; "EXCEL 2010: informazioaren kalkulua eta kudeaketarako baliabideak", Altsasu, 40 ordu, apirila; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta [formacion@aesakana.com](mailto:formacion@aesakana.com)

**Cederna.** Nafarroaren historia, turismo baliabidea, Arbizon, otsailak 12-19 eta 26, martxoak 5-12-19 eta 26, apirilak 2 eta 9; Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5; Zuzenean saltzeko estrategiak,

#### JAIOTZAK

- **Alex Silva Moreta**, otsailaren 15ean Altsasun.
- **Bidane Senar Goikoetxea**, otsailaren 15ean Arbizon.
- **Chloe Lizarraga Arregi**, otsailaren 20an Irurtzun.

#### EZKONTZAK

- **Martin Nafarrete Ormaetxea eta Begoña Erdozia Martinez**, otsailaren 22an Bakaikun.

#### HERIOTZAK

- **Catalina Zufiaurre Zubelzu**, otsailaren 18an Altsasun.
- **Alejandro Adrian Palacios**, otsailaren 20an Altsasun.
- **Nicanor Fernandez Galarza**, otsailaren 21ean Urdiainen.
- **Genaro Paniagua Otxoteko** dorrobarra otsailaren 21ean Iruñean.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz [sakana.admon@cederna.es](mailto:sakana.admon@cederna.es) - 948 56 70 10.

**IFESek hainbat ikastaro antolatzen ditu Iruñean.** Informazio gehiago [www.ifes.es](http://www.ifes.es), 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

**Forem Navarra - CCOO ikastaroak.** Informazio gehiago: [www.foremnavarra.org](http://www.foremnavarra.org)

**AIN-consulting ikastaroak.** Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta [formacion.ain.es/](http://formacion.ain.es/)

#### Lehiaketak

**Sahari kantari 2014.** Saharar herriaren egoeraz sentsibilizatzea helburu duen kantu lehiaketa. Talde eta bakarlariek euren kantak martxoaren 28ra arte auzeratu ditzakete. Informazioa [www.saharaiantari-2014.saharaelkartea.org](http://www.saharaiantari-2014.saharaelkartea.org)



## Txirindularitza



Kadeteen lasterketa iaz Altsasun.

## Txirindularitza denboraldia martxan

Igandean hasiko dute, juniorrek, 2014ko denboraldia

Nafarroako Txirindularitza Federazioak 2014 denboraldirako antolatutako txirindularitza txapelketak eta probak hastear daude. Aurten, nobedade moduan, Itaroa Txirindularitza Torneoasortuda Torneo honek modalitateakategoria bakoitzean txirindulari onenak zeintzuk diren erabakikodu, sailkapen orokorra sortuz. Urte bukaeran modalitate eta kategoria bakoitzeko onenek saria jasoko dute. Sakanan 8 proba jokatu dira.

## ASTEBURUKOAK

Martxoaren 2an, igandean, Villatuertak juniorren mailako 31. San Veremundo Zirkuitua lasterketa hartuko du, 11:00etan (77,6 km). Igandean ere master mailako lasterketa jokatu da Fiteron. Masterrek larunbatean hasi zuten aurtengo egutegia, Tafallan. Afizionatuek 2 proba dituzte. Larunbatean, Ereñon, Lehendakari Torneorako baliagarria dena, 15:30ean (67,7 km), eta igandean Kantabriako Kopa.



## Luis Leon Sanchez hirugarrena Andaluziako Itzulian

Movistar Team taldeko Alejandro Valverde irabazi zu Andaluziako Itzulia, Sky taldeko Richeie Porteri 31 segundoko tartea ateraz. Sakanatik sortutako Rural Kutxa-Seguros taldeko Luis Leon Sanchez 3.a izan da, 33 segundora.



## Afizionatuak, Rural Kutxako Azkarate 5.a Soraluzen

Afizionatuen mailako denboraldia hasi da. Igandean 17. Soraluzeko Proba jokatu zen, 23 urtez azpiko Lehendakari Txapelketarako baliagarria den lehen proba. 118 km-ko proban 154 txirindularik hartu zuten parte eta Lizarte taldeko Marc Soler iritsi zen bakarrik helmugara. Rural Kutxa talde sakandarreko Iker Azkarate 5.a izan zen, 58 segundora.

## Disko jaurtiketa

## June Kintana dominaren bila

ESPAINIAKO ATLETISMO TXAPELKETAKO JAURTIKETA LUZEEN TXAPELKETAN ARIKO DA BIHAR, LEONEN, DISKO JAURTITZAILE BAKAIKOARRA

June Kintanari goitik behera aldatu zaio bizitza. Aurten 19 urte beteko dituen disko jaurtitzaille bakai-koarra Leonera joan da, ikasketak eta kirola uztartzera. “Betidanik albaitaritza ikasi nahi izan dut. Eta, bestetik, disko jaurtiketan jarraitu nahi nuela argi nuen. Horrela, Leonera etorri naiz. Bertan albaitaritza ikasteaz aparte, Kirol-Errendimendu Handiko Zentro Berezia (KEHZB) dago, eta bertan disko jaurtiketa entrenatzen aritzen naiz” adierazi digu Junek.

June Kintanak 18 urte dauzka eta disko jaurtitzaille bikaina da. Juniorretako bigarren urteko kategorian dago, baina maila absolutuan ere lehiatzen da. “Jubeniletatik hasita kilo bat pisatzen duen diskoarekin hasten gara lehiatzen, maila absolutukoek ere erabiltzen dutena. Hortaz, maila absolutuan ere lehiatzen naiz” azaldu digu bakai-koarrak. Larunbatean, martxoaren 1ean, Espainiako Atletismo Txapelketen barruan Jaurtiketa Luzeen Txapelketa jokatu da, disko jaurtiketan, mailu jaurtiketan eta jabalinan, eta bertan ariko da June.

## Leongo errendimendu handiko zentroan trebatzen da

Estatuko disko jaurtitzaille onenetakoa du June. Bere marka: iaz 49 metro eta 68 zentimetrora bidalitzen du diskoa. Junior mailako Europako Atletismo Txapelketan ere aritu zen eta disko txapelketako finalean 6.a izan zen (49,17m).

Oraindik 18 urte dituen, progresiorako tartea badu Kintanak. Egunerok entrenatzen du KEHZB-an, igandean izan ezik, gutxi gorabehera 4 ordu egunerok. “Jaurtiketa-

## Espainiakoetan domina kolkoratzea helburu



Kintanak jaurtiketa luzeetako kirolari onenekin batera entrenatzen du, eta beraiek izango dira bere arerio nagusiak, hain zuzen, bihar Leonen jokatu den Espainiako Txapelketan. “Disko jaurtiketan Sabina Asenjo da estatuko onena. 27 urte ditu eta Espainiako txapelketa da, eta bera da biharko faborito nagusia. Iaz bigarren izan zen Belen Toimil oso ona da. Ni iaz hirugarrena izan

nintzen, eta ea nola ibiltzen naizen bihar” azaldu digu bakai-koarrak. Sasoi betean topatu du June. “Ongi ikusten dut nire burua, baina txapelketa egunean denak kontatzen du. Nolako eguna dudana, eguraldiak... Izan ere, hotz handia egiten badu, egun osoa gorputza bero mantendu behar duzu, beroketa asko egin... Egia esan, nik hotzarekin ez dut arazo gehiegi, hotzari ohituta

gaude, baina kirolari askori gogorra egiten zaie” azaldu digu. Txapelketan 6 jaurtiketa egin beharko dituzte, eta egindako distantziarik luzeena hartuko da kontuan. “Helburua dominaren bat lortzea litzateke. Aukerak badituzte, baina ea nola doan eguna. Nire marka gaintutako dudana ala ez? Aukerak badaude eta nahiko nuke; ea posible den” adierazi digu, irribarrez.

ko zentro hobereenetakoa da Europan. Errendimendu handiko zentroa da. Hemen zure mailan dabilen jendearekin entrenatzen duzu, eta alde horretatik gehiago saiatzen zara, entrenatzeko behar duzun giroa da, eta emaitzak onak izaten ari dira. Izan ere, Iruñean kasik ez nuen kompetentziarik. Hemen bai,

eta motibatuago aritzen naiz. Instalazio onenak dira entrenatzeko eta hiri berean albaitaritza ikasi ahal dudanez, Leonera etortzea erabaki nuen” azaldu digu.

Leongo esperientzia ona da bakai-koarrarentzat, baina badu beste aldea ere. “Hasieran etxetik urrun egotea oso gogorra egin

zitzaidan. Bizpahiru hilero noa etxera. Izan ere, Leon Bakaikutik 400 kilometro dago, urrutia. Herri-mina da okerrena, familia eta lagunengandik urrun egotea... Hemen ere lagunak egin ditut, baina ez da berdina. Baina beno, noizean behin familia eta lagunak etortzen dira eta pozik” aitortu digu.

## Pistako txirindularitza

## Hodei Mazkianen Caliko Munduko Pista Txapelketan

Altsasuarra Mundialetako kilometroko proban eta taldekako abiadura proban ariko da

Asteazkenetik igandera bitartean jokatu dira Munduko Pista Txapelketak, Colombiako Calin. 34 estatutatik bertaratutako 350 pistardek hartuko dute parte. Espainiako selekzioan 7 euskaldun ariko dira, Juan Peralta, Sergio Aliaiga, Leire Olaberria, Unai Elorriaga, Tania Calvo, Ane Usabiaga eta Hodei Mazkianen. Altsasuarra kilometroko proban eta taldekako abiadura proban ariko da.

Orain arteko txapelketa Britainia Handia da, eta britainiarrek garaipena berriro saiatu dira. Alemania, Australia eta Frantzia dira beste hautagai nagusiak.

## Gaur kilometroko proba du Mazkianek



Asteazkenetik Hodei Mazkianek taldekako abiadura proban parte hartu zuen. Juan Peralta eta Jose Morenorenekin batera. Hirukotea 9. postuan sailkatu zen, diploma lortzeko, hau da, lehen 8 postuetan sailkatzeko postu eskas batera. “2013tik hobetu egin duzu eta inportantea da hobetze bidean gaudela. Herbehereak eta Polonia gaintutzea gure helburua izan behar da hurrengo urteetarako” adierazi zuen Salvador Meliá selekzionatzaileak. Altsasuarra gaur, ostiralean, kilometroko proban ariko da.



Duatloia



Garcia de Eulate iaz Arbizuko duatloian.

**Sergio Garcia de Eulate 15.a Mungia VI. Duatloian**

Iñigo Maiza lehen kadetea izan zen eta Juan Luis Maiza 2. beteranoa

Larunbatean Mungia VI. Duatloia jokatu zen, esprint distantzian (5 km korrikan, 21 km bizikletan eta 2,5 km korrikan). Oier Ariznabarreta izan zen azkarrena (59:49). Sakana Triatloi Taldeko 3 kide lehiatu ziren eta emaitza oso onak lortu zituzten. Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 15.a heldu zen helmugara (1:01:19) eta Juan Luis Maiza 37.a (1:03:50). Etxarriarra beteranoen sailkapenean bigarrena izan zen. Bere seme Iñigo Maizak lan bikaina egin zuen, 127.a iritsi baitzen helmugara (1:11:29), probako lehen kadetea.

Motoziklismoa



Beraza podiumaren goialdean. FACEBOOK

**Marcos Beraza lehen juniorra Andosillako I. Cross Countryan**

Igandean I. Andosillako Cross Country lasterketa jokatu zen Andosillan, Club Motor Andola taldeak antolatuta. 57 motorrek hartu zuten parte, horietatik 33 junior mailan, 12 seniorretan, 6 beteranoetan eta 6 afizionatuetan. Maila absolutuan Jose Julian Escalada izan zen 8 km-ak osatzen lehena (bi ordu pasatxo). Junior mailan Marcos Beraza irintarra izan zen txapelduna.

Atletismoa

**Lilasterketa hartuko du Altsasuk**

EMAKUMEENDAKO LASTERKETA MARTXOAREN 16AN JOKATUKO DA

Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Egunaren ildora, hainbat ekitaldi antolatatu ditu Altsasuko Udalak, Emakumeen Bilgunearen bitartez. Horietako bat martxoaren 16an, 12:00etan, abiatuko den Lilasterketa izanen da. Donostian Lilatloia antolatzen den bezala, Altsasun emakumeen lasterketa bat antolatu nahi izan dute.

**Ahal den moduan**

Berdintasunaren aldeko lasterketa hau ez da proba lehiakorra izango. Korrika, oinez, patine-

**Izena ematea egunean edo aurretik**

Izena ematea dohainik izanenda. Aurretik [www.dantzaleku-sakana.com](http://www.dantzaleku-sakana.com) web orrian, eta egunean bertan, 11:30ean, Gure Etxean.



Emakumeak Altsasuko lasterketa batean. ARTXIBOA

tan... norberak ahal duen moduan egiteko aukera izango du, helburua emakumeen parte hartzea sustatzea delako, 0-99 urte bitarteko emakumeena. Probak San

Silbestrearen ibilbide bera izango du, 4 km ingurukoa, Foru plazatik aterata. Bukaeran parte hartzaileendako hamaiketakoa izanen da.

Mendia

**Mendi ibilbideen sarea, kolokan**

Nafarroako Mendi Federazioak adierazi duenez, ezin du gehiago bere gain hartu Nafarroako Ibilbideen Sareko mantenuen kostua. Nafarroako Gobernuak da ibilbide horien sustatzailea. Gobernuak diru-laguntza ematen zion mendi federazioari aipatu ibilbideen mantenu lana egiteko materiala eros zezan, eta federazioko 180 boluntariok, tartean sakandarrek, egiten zituzten mantenu lanak, boluntarioki: ibilbideetan seinalizazioa jarri, ibilbidea markatu eta beste.

Baina azken bi urtetan federazioak ez du Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzarik jaso. Nafarroan 4 ibilbide Luze (GR delakoak, tartean GR-20, Aralarko Bira) daude, 800 km osatzen dituztenak, eta Nafarroako Mendi Federazioaren esanetan "euren egoera delikatuada". "Bi urte daramatzagu mantenu lanen-

gatik diru-laguntza kobratu gabe. Gugara ibilbideen mantenuaz arduratzen garenak, baina tarte honetan ere sortutako gastuak gure gain hartu ditugu. Baina gastu hori ezin dugu gure gain gehiago hartu. Kirol zuzendariak esan zigun gaiari irtenbidea emango ziotela baina hilabete eta erdia pasatu da ordutik. Ez dagoela dirurik esaten du. Soilik interesatzen zaienerako dago dirua" adierazi dute federaziotik.

**Homologazioa kendu?**

Oraindik ez dakite zeregingo duten. "2006an ibilbideei homologazioa kendu genien, eta akaso berdin jokatu beharko dugu, ibilbideen kartelengainean homologatu gabe daudela jarri. Ikusiko dugu" adierazi dute federaziotik, triste.

Izan ere, mendizaleendako ezinbestekoa da ibilbideak markatuta eta egoera onean egotea, men-



Aralarren dagoen seinalea.

dizaleak ez galtzeko. Bestalde, ibilbideek ere turismoa erakartzen dute. "Asteburuko Navarturren Nafarroako Ibilbide Luzeen sarea iragartzen ari ziren. Nafarroako Gobernuak gure izena erabiltzen du euren eskuorrietan, baina gero ez dute mantenu kostua estali nahi" salatu dute federaziotik.



**Magnak 5. postuan jarraitzen du**

Magna Nafarroak garaipen garrantzitsua lortu zuen larunbatean Andaluzian, Jaen Paraiso taldeari 1-4 irabazi eta gero. Partida bukaran pozik zegoen Imanol Arregi. "Kontentua nagaraipenagatik eta, bereziki, jokalariek egindako lan bikainarengatik" nabarmendu zuen entrenatzaileak. "Partida serioa egin dugu. Gakoa jokalariek egindako lan kolektiboa izan da" gaineratu du.

**Bihar Manacorren kontra**

Sailkapen orokorrean Inter Movistar da liderra (55 puntu). Magna



Eseverrik partida bikaina jokatu zuen atzera ere. MAGNA

Nafarroa Xota 5.a da (34 puntu). Play off-etara sailkatezko biderako berri ona da hori. Bihar Magna Nafarroa Xotak 16 punturekin sailkapenean 14.a den H. Llevant

Manacor taldea hartuko du Anaitasuna pabilioian, 18:30ean. Partida konplikatua espero da, Manacorrek atzeko postuetatik alden du nahi duelako.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

26. JARDUNALDIA

IZARRA 0 - LAGUN ARTEA 0

Izarrak dominatu zuen hasieratik bukaerara, baina Lakuntzako taldeak serio jokatu zuen, ordenatuta, Izarraren presioari eusteko helburuarekin. Eta lortu zuten. Izarra behin eta berriz saiatu zen, baina Lagunen defentsa sendoa eta atezainaren geldialdi bikainek eraso horiek guztiak zapuztu zituen. Horrela, urrezko puntua ekarri zuen Lizarratik Lagun Arteak.

Sailkapena >>

- 1. San Juan ..... 60 p
- 16. Lagun Artea ..... 27 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - TXANTREA

(Igandean, 16:30ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

22. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA B 2 - ETXARRI ARANATZ 1

ARROTXAPEA 3 - ALTSASU 2

Lagun Artea B eta Etxarriren arteko derbyan, 10. minuturako Enekok Lagun Artea B aurreratu zuen. 60. minutuan Urkiak berdintzea lortu zuen. Arbitroak Etxarriko Urko atezainari txartel gorria atera zion, area kanpotik baloia eskuarekin gelditzeagatik, eta falta jaurtiketan Anderrek Lagun Artea B-ren bigarren gola sartu zuen. Etxarri berdintzeko ahalegina egin zuen, baina ez zuen lortu.

Altsasuk ezin izan zuen Iruñetik punturik ekarri. Lehen zatian lehia oso borrokatua izan zen; bi taldeek aukerak izan zituzten baina atsedenaldira golik sartu gabe joan ziren. Bigarren zatian Arrotxapea aurreratu zuen, baina Mariok berdintzea lortu zuen. Azkar bigarren gola sartu zuten iruindarrek, baina Davidek bina berdintzea lortu zuen. Tamalez, 83. minutuan Arrotxapeak hirugarren gola sartu zuen eta markagailua ez zen gehiago mugitu.

Sailkapena >>

- 1. Lekunberriko Beti Kozkor .... 46 p
- 5. Lagun Artea B ..... 35 p
- 7. Altsasu ..... 29 p
- 15. Etxarri Aranatz ..... 16 p

Asteburuko jardunaldia

DONEZTEBE - LAGUN ARTEA B

(Igandean, 17:00etan, Donezteben)

ALTSASU - BERRIOZAR

(Larunbatean, 16:15ean, Altsasun)

AMAYA - ETXARRI ARANAT

(Larunbatean, 15:45ean, Amayan)

Futbola



SAKANAKO

FUTBOL 8 TOPAKETAK

13. jardunaldia

Igandean Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketetako 13. jardunaldia jokatu da Altsasuko Dantzalekun.

13. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

11:30ean: Urdiain - A.K.T (Arbizu)

11:30ean: Etxarri Aranatz - Dantzaleku

12:30ean: Lagun Artea - Txartel

12:30ean: Tipi Tapa - Sayas

Atsedena: Kaixo



## Mendi lasterketak

Maiza 20.a  
Lezo-Jaizkibelen

Igandean I. Lezo-Jaizkibel mendi lasterketa jokatu zen (14 km). Helmugara iritsi ziren 359 mendi korrikariaren artean Iker Oliveri izan zen azkarrena (1:07:26). Jose Javier Maiza etxarriarra 20. postuan iritsi zen helmugara (1:17:01).

Triku-traila  
prestatzen

Garagarrilaren 29an mendi lasterketa berria izango dugu Sakanan: I. Triku-Trail lasterketa. Etxarri Aranatzek jokatu da, 21 km izango ditu eta 1.400 metroko desnibel positiboa. Proba Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako baliagarria izango da eta Etxarri Aranazko mendi lasterketarako zale batzuk antolatu dute. Ibilbidea eta beste kontsultatzeko facebookera sar daiteke (Triku-trail).

## Atletismoa



Raul Audikana. ARTXIBOA

Raul Audikana 27.a  
Ormaiztegin

Ormaiztegi 8. Sahararen aldeko lasterketa hartu zuen igandean. 255 korrikariarik osatu zuten proba eta Gorka Satrustegi izan zen azkarrena (32:49). Raul Audikana olaztarrak 27. postuan sartu zen (37:48).

## Saskibaloia

SAKANAKO  
I. SASKIBALOI TOPAKETAK9. jardunaldia,  
Altsasun

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako I. Saskibaloitopaketak antolatu ditu premi mailako taldeendako (8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak). Igandean 9. jardunaldia hartuko du Altsasuko Zelandi kiroldegia.

## 9. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Zelandin  
11:00etan: Putterri - Martinsasti  
11:00etan: Balankaleku - Beriain

## Pilota

## Elkarren kontra

AURREKO JARDUNALDIAN GALDU ETA GERO, PUNTU FALTAN DAUDEN BI BIKOEN DERBYA IZANGO DA XALA-ZUBIETA ETA EZKURDIA-ZABALETA BIKOEN ARTEKOA



Xala-Zubieta eta Ezkurdia-Zabaleta, joaneko partidaren orduan bi sakandarrak gailendu ziren.

## Saillkapena:

Olaizola-Aretxabaleta	8 puntu
Irujo-Barriola	8 puntu
Titin-Merino II.a	5 puntu
Xala-Zubieta	5 puntu
Urrutikoetxea-Beroiz	4 puntu
Bengoetxea-Zabala	4 puntu
Berasaluz-Albisu	3 puntu
Ezkurdia-Zabaleta	3 puntu

Binakako hasierako ligaxkak 10. jardunaldia ez zen batere ona izan pilotari sakandarrendako. Xalak eta Aitor Zubietak 6. puntua lortu eta Titini eta Merinori puntu bateko alde ateratzeko urrezko aukera zuten, baina errioxarrek euren asmoak zapuztu zituzten, 22-17 irabazi baitzieten Xalari eta Zubietari. Hala ere, 5 puntu dituzte lapurtarrak eta etxarriarrak eta finalerdietara sailkatzeko aukera badute.

Bestalde, Ezkurdiak eta Zabaletak ez zuten lehen itzuliko balentria errepikatu eta Aimar Olaizolak eta Aretxabaletak 22-13 hartu zituzten menpean sakandarrak. 3 punturekin, finalerdietara pasatzeko aukerak izugarri zaildu zaizkie, ia miraria litzateke. Baina, momentuz, ezer ez da ezinezkoa.

Partida luze eta gogorra  
errioxarrendako

Xala eta Zubieta eta Titin III.a eta Merino II.a-ren arteko partida luzea eta gogorra izan zen. Errioxarrek sekulako altxorra lortu zuten, Xala eta Zubietari tanto bat ateratzea eta finalerdietarako sailkatzeko bidean aurrera pausu

polita ematea.

Labriteko partidaren Merino nabarmenduz, defentsak ikaragarria egin baitzuen. Titinek ere aurrean ongi lagundu zion. Zubietari, aldiz, hasieran partidaren sartzeari kosta egin zitzaion, eta Xala aurrean deseroso ibili zen. Horrela, 13-9 aurreratu ziren errioxarrek. Baina Zubieta berotzen hasi zenean, gauzak aldatu ziren. Zubieta eta Xala hobeak ziren pilotatzen, baina tantoa despeditzea gehiago kostatzen zitzaion. Hala ere, 15era berdintzea lortu zuten. Merinok Zubietari eutsi egin zion eta Titinek errematean asmatu zuen azken txanpan. Aldiz, lapurtarrak eta etxarriarrak uste baino akats gehiago egin zituzten. Azkenean, 22-17 gailendu ziren errioxarrek.

## Olaizolak sakandarrak apurtu zituen

Ostiralean Urdulizen jokaturako partidaren, Aimar Olaizolak eta Aretxabaletak errebantxa hartu zieten Ezkurdia eta Zabaletari. Aimarrek hasieratik hartu zuen agintea, sakandarren gainetik pasaz. Aurreko koadroetan Olaizola Ezkurdia baino askoz gehiago izan zen eta berehala 6-1 aurreratu ziren Asegarekoak. Ezkurdia eta Zabaleta Aretxabaleta kargatzen saiatu ziren eta zazpita berdintzea lortu zuten. Baina Ezkurdiaren akats baten ondoren atzera ere agintea hartu zuen

## 11. jardunaldia

Olaizola-Aretxabaleta / Irujo-Tolosa (larunbatean Iruñean)  
Titin III.a-Merino II.a / Berasaluz-Albisu (igandean Logroñon)  
Xala-Zubieta / Ezkurdia-Zabaleta (astelehenean, Tolosan)  
Bengoetxea-Zabala / Urrutikoetxea-Beroiz (asteartean, Tolosan)

Aimarrek. Aimarrek 8 tanto egin zituen segidan, 16-7ra pasaz. Azkenean 22-13 gailendu ziren Asegarekoak.

## Derbya

Hasierako ligaxka bukatzeko 5 jardunaldiren faltan, Olaizola-Aretxabaleta eta Irujo-Barriola finalerdietarako sailkatuta daude. Beste bi biko geratzen dira sailkatzeko, eta gauzak oso estu daude. Astelehenean, inauterietan murgilduta dagoen Tolosan jokaturako sakandarren arteko derbya. Ezkurdiak eta Zabaletak Xala eta Zubieta izango dituzte arerio. Jokoa dagoen puntua berebizikoa da biendako. Hortaz, lehia oso estua espero da.

Aukera nimiñoena izaten jarraitzeko irabazi behar daude Ezkurdia eta Zabaleta, eta finalerdietarako euren hautagaitza sendotzeko puntu hori oso inportantea da Xala eta Zubietarrendako. Bihotza erdibituta, onenak irabazi dezala.

## Aspekoen 12.000 ardo botilak



Aspeko pilotari, teknikari eta langileak Oliteko Marco Real upategietan bildu ziren asteartean, San Ferminetako ardoaren desafioan irabazitako 12.000 ardo botilak jasotzera. Tartean zeuden Jose Javier Zabaleta, Joseba Ezkurdia eta Aitor Zubieta. Upategia bisitatu eta gero, guztiek bazkari eder batetaz gozatzeko aukera izan zuten.

Non  
erabili

## ALFA INMOBILIARIA

## ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txeketa opari.

KIXKUR ESTETIKA  
ZENTROA

## ZIORDI

30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

## IORTIA HORTZ KLINIKA

## ALTSASU

%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI  
ETA LENTZERIA

## ALTSASU

50 €ko erosketa batengatik %10eko deskontua.

## JON CORDON TAXIA

## IRURTZUN

%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN  
HARATEGIA

## UHARTE ARAKIL

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

MARTIARENA  
GAZTANDEGIA

## UHARTE ARAKIL

40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

## BERGARA CENTRO

## AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

## JUGA TAILERRAK

## ARBIZU

%10 eko deskontua mantentzearekin, %5eko deskontua gurgipiletan.

## AMAYA TABERNA

## IRURTZUN

Menuarekin txupittoa edo kafea doan.

ENERITZ  
ILEPAINDEGIA

## ETXARRI ARANATZ

30 €ko gastuarekin, %10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

www.guaixe.net-en  
zerrenda osoa ikusgai





# Barrutik sortzen den artea

## Angel Antonio Agirre olaztiarrak Kaluxan arte erakusketa mustu du

“1500 obratik gora ditut etxean”. Angel Antonio Agirrek Kaluxa Urdiaingo tabernan arte erakusketa mustu du. Zaila egiten zaio erakusketarako obrak aukeratzea. “Buruan dudana egiten dut”.

Eskultura eta margoa lantzen du. Eskulturaren kasuan txatarra hartzen du eta hortik abiatuta figurak egiten ditu. “Oteizianoak dira nire eskulturak. Oteizaren influentzia nabarmena da”. Pinturan, aldiz, buruan sortzen diren figurak egiten ditu. Marrak, kurbak eta bestelako irudi geometrikoen bidez pertsonak diruditen figurak osatzen ditu, besteak beste. “Jendeak esanahi bat bilatzen du beti, baina ez du zertan izan behar”. Bozetoak egingo balitu edo aurretik pentsatuko balu bere obra ezezela hain bere-

zia izango azaldu du.

Hilabete batez Kaluxan izango ditu erakusgai hainbat obra Agirrek. “Eskerrak eman nahi dut gure artea horrelako lekuetan erakusten uzteagatik. Erakusteko

espazioak behar ditugu”. Kaluxan bezala une honetan Araiako Umandi jatetxean erakusketa dauka Agirrek.

Kaluxako erakusketak ez du jarraipenik. Urteetan egindako

obrak dira. Erakusketa egiteko proposamena jaso zuenean male-tetan gordetzen dituen obrak ikusi eta batzuk aukeratu zituen. “Gainera, ez dakit noizkoak diren, ez diet data jartzen”. Gehienak tin-

ta txinatarrez akuarela paperean osatutako figurak dira. Hiru eskultura ere badaude. Dena dela, hainbat garai ezberdindu daitezke. “Batzuk linealagoak dira, beste batzuk kurbatuak...”. Erakutsitako obrek bereizgarri bat dute; ikusleen begietara ateratzen dituen lehenengo aldia da. “Erakusketa batean inoiz egon diren markoztatuko obrak erakusten ditut beti”.



ERKUDEN RUIZ BARROSO

## 30 urteko jarduna

1980ko hamarkadan hasi zen Agirre margotzen. Olatzagutiko Ikusmin Taldean aritu zen. Ondoren Iruñean ikasi zuen. 30 urteko jardunaren ondoren etxean obra gehiago ez direla sartzeko aitortu du Agirrek, hortaz, espazio handiagoa izatea nahiko luke eskultura handiagoak egin ahal izateko.

Arteaz ezin dela bizi adierazi du Agirrek. Izan ere, obraren batsaltzen badu kostuak ordaintzeko baino ez du ematen. “Arteaz bizi dela esaten duenari gezurra dela

esango nioke. Agian klaseak ematen, baina haren obrak saltzen bizitzea oso zaila da”. Horregatik tabernak bezalako espazioak erakusketak egiteko eskaintzea eskertzen du Agirrek.

“Gertatu izan zait obra bat saldu ondoren esan didatela ea ospetsua egiten naizen gero obra hori gehiagotatik saldu ahal izateko”. Haren artea estimatzea nahi du Agirrek. Iparraldean artearekiko kultura handiagoa dela esan du. “Iparralden eta Frantziaren obren sinbolismoaz galdetzen dizute, artistaren ibilbideaz interesa dute, eta artea errespetatzen dute”.

## bazterretik

### Andoni Igoa

#### Etxe orratzak

Aurreko batean Madrilan izan nintzen, eta arkitektoa naizenez azken urteotan eraiki dituzten lau dorretatik pasatzea derrigorrezkoa iruditu zitzaidan. Lau dorre hauek Espainian dauden etxe orratzik garaienak dira. Ikusgarriak iruditu zitzaizkidan 250 m altuerako eraikin hauek, horregatik etxe orratz edo gaztelaniaz esaten den moduan “rascacielos”-ei buruz labur-labur hitz egingo dut oraingo honetan. Etxe orratzak Estatu Batuetako Chicago hirian sortu eta ondoren New Yorken perfektionatu ziren.

Eraikin mota honek ikuspegi urbanon iraultza ekarri du azken 100 urteotan. Gaur egun modernitatearen irudi bilakatu dira hiri eta lurralde desberdinetan. Etxe orratzen garapenean lagundu duena igogailuaren sorrera izan zen. Eraikuntzan lortu ziren aurrerapen teknikoek ere honetan zerikusia izan zuten. Hau da, altzairua, hormigoi armatua eta beiraren sorrerak funtsezkoak izan dira arlo honetan.

Lehenengo etxe orratz kontsideratu zen eraikina Chicagoko Home Insurance Building izan zen. Le Baron Jenney izeneko arkitektoak disei-

natu zuen eta 1884-1885 urteetan eraiki zuten. Eraikin hau sortu ondoren, munduko hiri garrantzitsuenak etxe orratzez betetako negozio guneak sortu dituzte, hiri bakoitzaren irudi bereizgarri bat emanez.

Munduko etxe orratzik garaiena Dubain dagoen Burj Khalifeda. Bere 828 m-ko altuerarekin, gizakiak eraiki duen egiturarik altuena da. Irakurri dudanez, 1.140 milioi € kostatutako obra izan da.

Beti bezala, gertu dugun adibide batekin bukatzea nahiko nuke. 165 m altuera duen Bilboko Iberdrola dorrea, alegia. Euskal Herri-



ko eraikin moderno esanguratsuenetakoa bihurtu da Guggenheim

museo ondoan dagoen beirazko erraldoi hau.



DANBOLINTXULO  
HAUR-LUDOTEKA

## Aurrematrikula epea irekita

Izen-emate epea: otsailaren 17tik martxoaren 7ra

2014-2015  
ikasturtea

Ate irekien jardunaldia: Otsailak 24, 10:00-13:00

#### Gure eskaintza

- 8 hilabete eta 2 urte bitartekoak.
- Irailetik uztaiera.
- Ordutegia: 8:00-13:00
- Euskaraz.
- Jarduera anitzak: tailerrak, psikomotrizitatea, jolas librea...
- Talde txikiak.
- Hezitzaile arduratsuak.



Eskaera orriak hartzeko: Kale Nagusia 73 • Etxarri Aranatz (Musika Eskolaren ondoan)  
<https://sites.google.com/site/danbolintxulo/> • danbolintxu@gmail.com



**Tarima Beltzak bihar mustuko du Nunca fuimos héroes antzezlana, 20:00etan eta 22:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean**

# Bakardade tragikomikoa

**A**ltsasuko Tarima Beltza antzerki talde amateurrak bere bosgarren antzezlana mustuko du bihar. Jon Barbarin zuzendariak antzezlana "tragikomedia sozial" gisa definitu du. Obrak publikoari pentsarazi eta disfrutatzeko bidea emanen diola gehitu du. Xabier Mendigurenen *La noche de los héroes* obran oinarrituta dagoen antzezlana da eta Juan Manuel Herrero eta Laura Laiglesia egokitu dute.

## Bi familia

Bihar Iortia kultur gunera joaten direnek bi familien istorioak ezagutuko dituzte. "Gizonezkoak lagunak dira. Batek enpresan aurrera egin du. Bestea betiko moduan gelditu da". Gazte garaiko konpromiso abertzale politikoa apaldu egin zaie. "Seme-alabak dituzte. Nork bere bizitza egin du eta topo egiten dute orain. Pertsonaiengan "frustrazio kutsu bat" dagoela esan digu zuzendariak.

Barbarinek estreinaldiaren bezperan "urduritasun puntu bat" sentitzen dutela esan digu. "Obra entseatzeko eman dugu eta orain publikoaren erantzuna behar dugu". Entseguen bukaerarekin Barbarinek zuzendaritza utzi eta interpretazio fasean teknikari izanen da: "dagoeneko obra aktoreena da".

Eszenografiari dagokionez,

**Arantxa** (Marta Diego). Xabierren emaztea. Eroskiko kutzazaina da baina gehiago behar duela sentitzen du. Bizitzan zerbait lortu duela erakusteko dirua eta gauzak lortu dituela erakutsi beharra du. Baina sakonean oso bakarrik sentitzen da.

**Irati** (Natalia Martín). Arantxa eta Xabierren alaba. 16-17 urte inguru. Beti borrokan dago, gizarte honen kontra. Amak ez duela ulertzen pentsatzen du. Harekiko amorrua sentitzen du. Bakarrik sentitzen da.

**Jon Barbarin**, zuzendaria

**Sasha** (Amaia Mintegi).

Arantxak etxeko lanak egiteko kontratatu du. Azken batean itxura egiteko kontratatu du. Errusiatik dator.

**Mila** (Mertxe Herrera).

Josebaren emaztea. Ospitalean lan egiten du. Egokitua. Goxoa da. Bera ere zapuztua dago: erlazioa, senarrarekin beti tira-biratan ibiltzen da.

**Xabier** (Josu Castillo). Arantxaren senarra. Enpresan gora egin du. Lanean gustura dago, baina emaztearekin tira-birak ditu. Nahiko bakarrik sentitzen da.

**Joseba** (Juan Manuel Herrero). Milaren senarra. Gaztetan politikan oso sartua zegoen. Langile xumea. Ilusioak galduta, zapuztua sentitzen da.

argiak erabiliz banatuko dute eszenatokia, bi etxe eta leiho bat irudikatzen. Altzari gutxi batzuekin osatuko dituzte espazio horiek. Obraren zatirik handiena prota-

gonista diren bi bikoteetako baten etxean gertatzen da, afaltzera biltzen direlako. Mahaiaren bueltan bilduko dira denak. Eszenatokiaren atzeko aldean "leiho" batzabal-

du dute eta handik bikoteetako baten alaba ariko da.

Incierto Troupe talde iruindarreko Josu Castillo da Tarima Beltzako kide berria obra honetan.

Obran beste pertsonaia bat ere agertzen zen, Anartz, bikoteetako baten semea. Baina aktore faltagatik haren aipamena egiten dute pertsonaiek.



tan aurrera egiteko aukera.

## Gehiago

Igandean, Barañainen, Miluzeko barañetak taldearekin neurtu ziren Bizkorratxikoko Joxema Lei-

tza, Joseba Beltza, Saats Karasatorre eta Aitor Zubiria. Batzuk eta besteek ez zuten ezer jokoan, baina giro polita jarri zuten emanaldian. Etxeko taldeak lortu zuen jokoan zegoen puntua.

## Gure bardorik gabe aurrera egingen du lehiaketak

**B**ardoak, Nafarroako taldeko bertso ekimenaren lehen fasea despeditu da. Sei taldek egin dute aurrera eta haien artean ez dago sakandarririk.

Ostiralean, 90 bertsozaleren aurrean, Etxarriko gaztetxean Baztan-Malerrekako Etxeko Kontuk taldeko Iker eta Egoitz Gorosterrazu eta Amaia Elizagoien neurtu ziren Bilixkorriko taldeko Eneko Lazkoz, Oier Lakuntza, Alain Iriarte eta Unai Artieda sakandarrak. Irabazten zuenak lehiaketan aurrera egingen zuen. Bi taldeek saio orekatua eskaini zuten, maila onekoa, bizia eta umoretsua tarteka. Baina akaberan bisitari ekeraman zuten puntua eta harekin lehiake-

**2 SARREREN ZOZKETA**

**ZEINTZUK DIRA ZEA MAYS TALDEAREN AZKEN BI DISKAK?**

**ERANTZUNAK:**  
Bidali erantzuna, [gutunak@guaixe.net](mailto:gutunak@guaixe.net) helbidera, martxoak 6ko goizeko 10:00ak baino lehen.

**OLAZTEKO GAZTE ASANBLADAK**

**Zea Mays**

MARTXOAK 8, LARUNBATA  
GAUEKO 23:30AN MAIUSUENA GAZTETXEAN  
LARRERAKO C/INGURUEN 10, 48100 BILBAO

GAZTETXEA SENTITU...  
GAZTETXEA ZABITU...  
GAZTE EXHA MAITATU...

**HORTZ KLINIKA**

**Etxarri**

Eguerdietan zabalik

**948 460 315**  
Kale Nagusia 27  
Etxarri Arantz

**Egin zaitez bazkide**

[www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

**beleixeguaixe**



## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 60%	euria: 99%	euria: 98%	euria: 96%	euria: 88%	euria: 65%	euria: 60%
Min: 2 Max: 7	Min: 4 Max: 8	Min: 6 Max: 7	Min: 4 Max: 6	Min: 3 Max: 10	Min: 5 Max: 9	Min: 4 Max: 12

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	14.3	-3.7	14.8
Altsasu	14	-2	12.5
Aralar	6.1	-3.5	11.2
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
1	8	16	24

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Otsaileko bazkide sarituak

- 1.- **Raul Audikana Arrese**  
(Olazti)
- 2.- **Jordi Arbizu Perpiña**  
(Iturmendi)
- 3.- **Lucas Petriati Ijurra**  
(Arbizu)
- 4.- **Joseba Aldaz Lopez de Goikoetxea**  
(Olazti)

**MARSUKO SARIAK:**

1. EKAINBERRI KOBAZULOTARAKO 2 SARRERA, GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

2. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

TAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

3. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

4. GAZTEZULO ALDIZKARIRAKO 3 HILABETEKO HARPIDETZA, LACTURALE ESNEA ETA YOGURTAK, MAGNA NAVARRARAKO 2 SARRERA

# >> 11 galdera

Aitziber Etxaiz eta Maixabel Lopez de Uralde

Beteranoen Dantza taldea

Testua: Erkuden Ruiz Barroso



## 1. Nola bururatu zitzaizuen dantza taldea berriz osatzea?

Ikastolako irakasle batzuk jubilatzeaz zeuden eta haiei omenaldi txiki bat egin nahi genien. Orduan ikastolako ikasle ohi eta dantzariak larunbatero elkartzen hasi ginen. Dinamika horretan sartuta geundenez, segitzea erabaki genuen eta beteranoen dantza talde bat sortu.

## 2. Noizko dantza taldeaz ari gara?

Altsasuko Dantzari taldea izena zueneko. Gero Aitzindari izan ginen; 20-25 urte erraz. 14 urterekin hasi ginen. Belaunaldi asko daude. Eta jende gehiago bildu nahiko genuke.

## 3. Dantzari ohiak parte hartzea animatu nahi dituzue.

Bai. Horregatik Guaixeri esker eman nahi diogu eskaintzen digun tarte honengatik. Deialdi berezi bat egin nahi diegu dantzari beteranoei. Gu larunbatetan elkartzen gara 12:00etatik 13:00ak arte mojetako gimnasioan. Baina beste norbait interesatuta balego eta beste ordu batean nahiago balu, moldatuko ginatke.

## 4. Eta lehendik talde batean egon ez diren dantzari berriak etortzen badira ?

Ongi etorriak ere bai. Tokia dago guztientzako. Printzipioz talde beteranoena pentsatuta dago. Ikusten dugu Altsasun badagoela musika banda eta hor bada jende heldua; badago abesbatza eta hor ere badago jende heldua, eta jakinda Altsasun dantza taldean harrobia egon dela eta hor gelditu dela, hamarkada batzuk pasatu dira dantza taldea bukatu dela eta orain desagertu dela. Badaude dantzariak taldekatu gabe. Beraz, printzipioz dantzari ohi

bada hobe, baina dantzari ohiak ez bada, ongi etorri.

## 5. Zein helbururekin sortu da taldea?

Herriari dantza taldea dagoela erakutsarazi nahi diogu. Herriari begira egin dugu. Gainera herriak, edoudalak, Mojetakogimnasioa utzi digu, beraz, urtean zehar zerbait egin behar dugu horren truke.

Guk ikasiko duguna edo dakiguna Gurutzearen egunean, edo San Pedronedo San Juanetan... edo gogo daukagulako elkartuko gara lau pote hartu eta ez dakitzein kororekin elkartu eta herriari eskainiko diogu. Emanaldiak egingo ditugu, baina ez plan serioan; modu oso xume batean, herrikoia. Oraindik ez dugu ezer pentsatuta. Baina argi dago zerbait egin behar dugula udalari, baita gure buruari ere, eskertzeko. Gainera, dantza taldean dauden jantziak kaleratuko ditugu. Oso jantzi politak daude, eta pena da jantzi guztiak armairubatean hautsez betetzen egotea. Hori dena aprobeztatu behar da.

## 6. Zenbat elkartzen zarete?

Zortziren bat gutxi gora behera. Dantzak egiteko nahikoa, baina jende gehiago behar dugu. Mutlak falta dira. Eta ez dago toperik.

## 7. Zein dantzak entseatzeko dituzue?

Euskal dantzak. Gogoratzen ari gara garai batean ikasi genituenak. Makil txiki, zinta dantza, aurrekua...

## 8. Zuek gogoratzen dituzuen dantzak egiten dituzue?

Bai. Gure artean badago jendea hobe kontrolatzen duena. Horiek aurrean jartzen dira eta guk aurrekoari begiratzen diogu. Adibidez,

Erkuden Goñiri. Gainera, Altsasuko Dantza taldeak fase desberdinak izan zituen. Gazteenak, adibidez, gehiago kontrolatzen dituzte pausuak beste modu batera ikasten zituztelako.

## 9. Lehen dantzari talde handia zegoen eta gero pixkanaka desagertu zen. Zer gertatu zen?

Uste dugu adinak asko egiten zela. Batzuk gu baino helduagoak ziren eta ezkontzen hasi ziren, seme-alabak izaten... Gero gu iritsi ginen eta unibertsitatara joan ginen eta bakoitzak bere bidea hartu zuen. Aitzindari Dantza taldeak maila altua hartu zuen eta hori mantentzea zaila zen ere. Baina adinak markatu zuen bukaera. Talde guztietan gertatzen dena. Orain umeak bideratuta ditugula, berriz hasi gara.

## 10. Nola gogoratzen dituzue garai horiek?

Horiez da ahazten. Oso oroitzapen onak ditugu. Oso ongi pasatzen genuen. Askok ikasi genuen. Gu oso gazte hasi ginen, eta gu baino zaharragoak zeuden eta orduan harremanak oso onak ziren denon artean. Mila gauzetan ikasi genuen. Far asko egin genituen. Orain oso zaila da hori bueltatzea, ezinezkoa, izan ere, garai batean izandakoa ezin duzu berriro bizi, baina far batzuk bota nahi ditugu.

## 11. Zeintzuk dira dantzatzearen onurak?

Alde onak guztiak. Batetik, kirola egiten duzu eta bizirik sentitzen zara eta, gero, dantzatzea da gu betetzen gaituen gauza. Eta dakigun hori herriari erakusteko gehiago betetzen gaitu. Guztien artean ondo moldatzen gara eta far asko egiten dugu eta hori ere ona da. Terapia moduko zerbait da.

# erakusketen aurre-ekoizpena

horma-irudien diseinua, argazkiak eta dokumentuak digitalizatzea, testuak sortzea...

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

guaixekomunikazioa.blogspot.com 948 562 107 argi@guaixe.net